



Xabier SILVEIRA

Txapeldun berria

Bertsolari gazteak gailendu dira Nafarroako Txapelketan. Xabier Silveira dugu, 20 urte-ekin, txapeldun berria. **3**

6 Iritzia: Espainiako sindikatu nagusiek sinatu berri dute lan-erreformari buruzko akordioa

ELA, LAB eta ESK-CUIS sindikatuen balorazioak.

10 Nekazaritza: Ardi esnea

Hemengo gasnak kanpoko esnearekin egiten direla salatu du EHNE sindikatua.

Etxeak moldatzeko, lehen baino dirulaguntza-eskari gehiago tramitatzen da orain

Baztanen eta Bortziriak-Malerrekan, Cerderna-Garalur agentziaren bitartez tramitatzen ahal dira etxebizitzak moldatzeko dirulaguntza eskaerak, eta Leitzaldean, berriz, udaletxeak berak eskeintzen du zerbitzu hau.

Pixkanaka-pixkanaka, gero eta gehiago dira etxean obrak egiteko horrelako laguntzak eskatzen dituzten herrita-

Laguntza-eskariak tramitatzeko zeuden topeak zabaldu berri ditu Nafarroako Gobernuak.

Orain, aurrekontua aurkezterakoan ez dago batere mugarik

rrak; teilatua konpondu, parretak zartatu eta xuritu, kalefakzioa jarri, etxe barneko obrak... **4**



PLAIAUNDI-IRUN INSTITUTUA

Plaiiandi, z/g

IRUN

Tfnoak.: 943-617547 / 48 • Faxa: 943-612550

Mende berriaren aurrean, ikasbide berriak.

**Gure institutuan LOGSE Batxilergoak
ezezik Lanbide Heziketa berriaren**

heziketa-zikloak ere aurkituko dituzu.

PLAIAUNDI INSTITUTUAN IRAKASTEN DIREN IKASKETAK

- ◆ Batxilergo berriak (16 - 18 urte)
 - Natur eta Osasun Zientziak
 - Humanitate eta Gizarte Zientziak
- ◆ Famili hauekako Erdi eta Goi Mailako heziketa-zikloak
 - Laborategia eta Osasungintza
 - Haur Hezkuntza
 - Informatika
 - Administrazioa
 - Merkataritza eta Marketinga

ESKATU INFORMAZIO GEHIAGO KONPROMEZURIK GABE

**Zure etorkizuna prestatzen lagunduko zaitugu!
Laguntzeko, Orientazio Departamendua daukagu.**

DATUAK.....

❖ 21 urte bete-ko dituen lesakarrak Nafarroako bertsolarien txapela jantzi zuen lehen aldiz Sunbillan, apirilaren 13an.

❖ Leku berean egin zuen debuta 15 urte bertzerik ez zituela. Urte hartan finalean sartu zen, sekulan Nafarroako txapelketan izan den finalistik gazteena izanik.

❖ Ama lesakarra eta aita portugesa baditu ere, bi aldetatik datorkio bertso zaletasuna: amaren aldeko aitona bertsolaria zen eta aitaren aldekoa berriaz, fado kantari famatua.

❖ Aurtengo txapela, Euskal Herriaren aldeko borrokan bizia ematen dutenei, ETako militanteei eta kale borrokan ari diren gazteei eskaini zien.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

✎ **Xabier SILVEIRA** Lesakako bertsolaria

“Bertsoa odolean datorrela erraten dute, baina ikasi eta landu egiten da”

NOLAKO SAIOA IRUDITU ZITZAIZUN SUNBILLAKO, OROKORREAN NAHIZ PERTSONALKI?

Orokorrean nahiko saio ona izan zela uste dut, txapelketa honetako onena. Jendea gustora egon zen, irri eginenez eta... Nere aldetik saio txukuna egin nuela iruditzen zait. Ezin dut erran onena izan nintzenik, hor gibeletik zaila baita guzien saioa aditzea, baina kontent gelditu nintzen nire buruarekin.

ETA TXAPELKETAREN BAZORAZIO OROKORRA EGITERAKOAN, ZER AIPATUKO ZENUKE?

Antolakuntza aldetik akats batzuk izan dira uste dut. Iparraldeko saioan gai-jartzailea eta lekua —eliza—, ez ziren egokienak txapelketa baterako. Bertalde, belaunaldi arteko erreleboa eman da, sei gazte sartu baikara finalean. Azken urteetan, batean Alkat, bertzean bertze norbait finaletik kanpo gelditzen zen, baina aurtengoa errematea izan da.

BELAUNALDI BERRI HORREK ZER ESKAINIKO DIO BERTSOLARITZARI?

Freskotasuna eta betiko txapelketa tipikoekin pixko bat haustea. Gaur egun haurrak direnak saioetara gehiago hurbiltzea eta afizioa

► *“Belaunaldi arteko erreleboa eman da, sei gazte sartu baikara finalean. Azken urteetan, helduetako norbait beti finaletik kanpo gelditu izan da, baina aurtengoa errematea izan da”*



«Txapela dela eta, uda aldera saio gehiagotara deitzea espero dut»

indartzea espero dugu. Bertsolarietatik hurbilago egonen dira eta bertsolari gazte gehiago sortzeko aukera ikusten dut. Guk ere erreleboa beharko dugu noizbait. **HIRUGARREN FINALA ZENUEN, BAINA HORTARTEAN ZENBAIT TXAPELKETETAN ITZALEAN IBILI ZARA. ZER ALDA-**

TU DA URTE HAUETAN?

Nere bertsoak aldatu dira. Hasierako bi urtetan ez nuen sobera pentsatzen zertan ari nintzen, ahoa ireki eta bota egiten nuen. Gero buelta batzuk eman nizekion buruari, gauza batzuekin ez nintzen ados eta saiatu nintzen hori aldatzen... Horrek konfidantza kendu zidan eta maila jautsi nuen. Orain konfidantza hori berreskuratzen ari naiz.

FAMILIAREN BI ALDETATIK DATORKIZU BERTSO ZALETASUNA. BAI-

NA, BERTSOLARIA JAIO EDO EGIN EGITEN DA?

Erratan denez, odoretik etortzen da eta seguraski zerbait izanen da, baina gehienbat ikasten dena eta egiten duzun lana da.

URTEAN ZEHAR GERO ETA SAIO GUTTIAGO EGITEN ARI ZARETE. TXAPELA BURUAN IZATEAK ALDATUKO DU HORI?

Hori espero dut. Saio gutti izan dut azken urtean, baina orokorrean ere, saio kopurua jautsi egin da eta betiko 6 bertsolariak aritzen dira.

Lau urte pasa dira Cederna-Garalur agentziak bere bulegoak Doneztebe eta Elizondon ideki zituenetik, eta denbora horretan hainbat eta hainbat dirulaguntza eskaera tramitatu dira handik. Iazko ekainean Nafarroako Gobernuak etxeak zaharberritzeko dirulaguntzetan murrizketak egin eta zenbait muga paratu zituen. Errate baterako, obraren aurrekontua milioitik goitiko izatekotan, ez zuten subentziorik ematen, eta hori dela eta eskaerak puska jautsi ziren. Aurten, berriz ere, laguntza hauek jasotzeko baldintzak lehengora itzuli dira.

TESTUA: ASIER GOGORZA

Etxeak moldatzeko dirulaguntzak

baztan eta Bortziriak-Malerrekan Cederna-Garalur agentziaren bidez tramitatu dira etxeak moldatzeko dirulaguntza eskaerak, eta Leitzaldean, berriz, udaletxeak berak eskeintzen du zerbitzu hau.

Horretarako aparejadore bat eta bi laguntzaile ari dira egunean 4 orduz lanean.

Zerbitzu hauetako arduradunek erran digutenez, gero eta gehiago dira etxean berriztatzeak egiteko horrelako dirulaguntzak eskatzen dituztenak. «Jendea ikasten ari da pixkanaka-pixkanaka, lehen informazio eske etortzen ziren bai-

na gutti ziren eskaria tramitatzera ailetzen zirenak» horrelaxe mintzatu zaigu Ixabel Elizalde, Cederna-Garalur agentziak Baztanen duen arduraduna.

Iazko ekainean Nafarroako Gobernuak egindako murriztapenak direla eta, dirulaguntza eskaerak dexente jautsi ziren. «Abendutik honat baldintzak al-

datu egin dira berriz, eta orain aurrekontua aurkezterakoan ez dago batere mugarik» Ixabelek adierazi digunez. Aurten 4 espediente ideki dira Elizondon, eta 13 partikular soilik hurbildu zaizkio informazio eske. Bere hitzetan, «xuritzea, zartatzea eta teilatua konpontzea da gehien egiten dena, baina kalefakzioa

paratuedo etxe barneko bertze instalazio batzuk egiteko dirulaguntzak ere badaude». Halere, baldosak aldatu eta bertze kontu tti-kietarako ezin da dirulaguntzarik galdetu.

Zer egin behar da?

Modu honetako dirulaguntzak ez dira egun bate-tik bertzera kobratzen.



Gauean Leitzako Torre. Eskuin aldean, Arribeko Tomasenea. Behean Oronozko Petrinea.



Nafarroako Gobernuak 1992an hasitako dirulaguntza politikarekin segitzeko erabakia hartu zuen duela hilabete batzuk, abenduan. Orduetik honat berriro ugaritu dira laguntza eskariak. Kanpoaldeko obrak ez ezik barnekoak ere sar daitezke eskarietan.



Gainean dauden argazkietan Arantzako Ibarla baserria. Eskuinean Berako Malaustea. Gehienetan teilatuak eta paretan zartadurak berritzeko eskatzen dira laguntzak. Dena den, etxebizitzaren barnean berrikuntzak egiteko ere eskatzen ahal da (kalefakzioa jarri...)



AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskariak tramitatzeke, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- 1 Etxe-jabearen Nortasun Agiriaren (DNI) bi fotokopia.
- 2 Etxearen eskriturak, bi fotokopia.
- 3 Errenta aitorenaren bi fotokopia.
- 4 Etxearen argazkiak (kanpotik eta moldatu beharreko aldeak).
- 5 Obraren aurrekontua (neurketa eta prezioekin).
- 6 Proiektu teknikoa.
- 7 Obra Baimena edo Lizentzia.



Arantxa Arregi, Doneztebeko Cederna-Garalurreko arduradunak azaldu digu prozesua: «*hilabete baten buruan onartu edo ezeztatu egiten dute laguntza, eta baiezkoa bada, urte inguruko epea ematen dute obrak egiteko. Dena akitzerakoan jasotzen da dirulaguntza hori*». Hurrengo hauek dira dirulaguntzak eskatzeko eman beharreko pausuak:

1 Cederna-Garalur agentzian, Udaletxean edo zuzenean Nafarroako Gobernuari obrari buruzko informazio guzira aurkeztu behar zaio; zer den moldatu beharra, epeak...

2 Behin eskaera Iruñera bidali eta onartua dagoenean, obra egiteko epea jakinarazten dute, eta baita subentzioaren zenbatekoa ere, hilabete baten buruan

gutti goiti-beheiti.

3 Obraren hasiera eta bukaera zertifikatzen duten agiriak bidali behar dira.

4 Subentzioa pagatu aitzinetik obra akitua dagoela segurtatzeko teknikoren bat bidaliko dute, edo hori frogatzen duen Udaletxearen agiri bat exigitzen dute, bertzenaz.

Dirulaguntzak jasotzeko baldintzak

Familia zenbat kidek osatzen duten, etxeak 50 urte baino gehiago dituen, eta bertze faktore aunitzen araberha haunditu edo tikitatu egiten da dirulaguntza. Hauek dira bete beharreko baldintza batzuk:

— Elbarrituendako egokitze kasuetan ezik, etxeak 15 urtetik goiti izan beharko ditu.

— Etxearen berezko estruktura mantendu behar da, barrerendik hustu gabe, eta aintzinaldea bota gabe.

— Udal-baimena lortu beharko da, eta obrak egiteko ez du traba legalik egon behar.

— Berrikuntzak egin ondok, bertan bizitzen hasteko beharrezko baldintzak izan beharko ditu etxebizitzak.

— Moldatu behar den etxearen %70a baino gehiago bizi-tetxerako izan beharko da; portzentai horretan ez da beheko sotoa sartzen.

— Obraren aurrekontuak milioi erdia gaintitu beharko du, baina metro karratuko 89.797 pezetatik pasatu gabe.

— Eskatzailearen zerga oinarria aurrekontua baino 7 aldiz tikiagoa bada, ez du dirulaguntzarik jasoko, obra hori egiteko ahalmen ekonomikorik ez duela estimatuko baita.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu hemen aipatzen diren telefonoetara. ■

INTERESEKO TELEFONOAK

Nafarroako Gobernu - Iruñea: 42 75 50

BAZTAN (Isabel Elizalde).....580561	BORTZIRIAK (Arantxa Arregi).....451654
LEITZALDEA (Joseba Azpiroz).....610310	MALERREKA (Arantxa Arregi).....451654

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.400 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Internet:

http://www.encomix.es/ttipi-ttapa

e-mail:

ttipi@encomix.es

e-mail:

ttipi@mail.sendanet.es

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Asier Gogorza, Joxe-
manuel Irigoien. **Administrazioa:**
Amaia Goia. **Erredakzio taldea:**

Pello Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban
Sasi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-
lorena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiaburu, Joseba
Parabide, Alizia Olaizola, Mar-
tari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
el Gerendiain, Jacqueline, Eli-
abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
kar Txoperena, Pello Apezetxea,
Aitor Arozena, Kristina Boan.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
roa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
ier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

ttipi-ttapak ez du bere gain har-
ten derrigorrez, aldizkarian adie-
zazitako erranen eta eritzien eran-
zukizunik.

Arakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako Eus-
ara Mankomunitatea, Malerre-
ako Zerbitzu Mankomunitatea,
ugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Lan Erreforma sinatu berria: Sindikatuen balorazioak

**Hemendik hamar urtera
langile guziak ebentualak
izatea nahi dute**



Pello ASTIZ
ESK-CUIS

Enpresarioek as-
palditik bilatzen
ari ziren helburua
lortu dute: despi-

doa merketzea. Hori da akordio
honen ondorio nagusia, enpre-
sariei erreztasun gehiago ematen
baitzaie langileak kanporatze-
ko. CCOO eta UGT atzera-pausuak
ematen ari dira, izan ere, 1994an
Erreforma honen kontrako greba egin
zuten eta ez da ulertzekoa oraingo alda-
keta. Instituzioek ematen dioten
boterea mantendu nahi dute eta
bertze kontrapartidaren batizane-
dute, seguraski, nazionalitateetako
sindikatuak indarra kentzeko helburu-
arekin. Akordioaren helburua, heme-
dik 10 urtera, fijoak jubilatzen
direnean, langile guziak ebentualak
izatea da. Honek neoliberalismoaren
bidean sartzen gaitu: merkatu libre-
a eta despidolibrea. Enpresariak irabaz-
ten aterako dira, azken egunetan Pa-
trona eta Gobernuak akordioa dela eta,
zein pozik azaldu diren ikustea be-
sterik ez dago. UGT eta CCOO ez dute
oposiziorik egin, dena negoziazioan
oinarritu dute, mobilizaziorik gabe.
Hasierako posizio txarra eta ondorioa
ere txarra izan da.

**Enplegua pixkat indartuko
da, baina lanetik botatzea
izugarri merketuko da**



Enrique LOPEZ
ELA

Lan Erreforma si-
natu UGT eta
CCOOk sinatu
dute Gobernuare-

kin, Ministro Kontseiluak ber-
restea falta bada ere. Euskal He-
rriko sindikatu haundienareki-
ko ez dute batere begirunerik
izan. Itxuraz, enpleguaren al-
detik hobekixiagotzeko da, baina,
egitan zabortzat hartu daitekeena,
enpresariak langileak lanetik bidaltze-
ko izanen duten errestasuna da. Beraz,
enplegua indartuko da zertxobait,
baina lanetik kanporatzea izu-
garri merketuko da. Bertze be-
hingoz enpresaria irabazten aterako
dela uste dut. Langileak Administrazio-
aren esku eta enpresariaren esku
geldituko da, berriz ere. Enpre-
sariei, azken finean, lantegia ixte-
ko edo langileak bidaltzeko justifi-
kazioak zabaldu zaizkie. Langile-
endako ez da hobekuntza haundirik
sumatuko. Beraz, nahiz eta oraindik
dokumentazioa esku artean ez dauka-
gun, ezin gara ados egon sinatuta-
koarekin, bertzeak bertze ez zaigu-
lakoz kontuan hartu. Euskal Herri-
an, bertze behingoz, gure eremutik
kanpo egindako akordio bat inposatu-
ko zaigu.

**Gure bizkarrean egindako
akordioak eragin handia
dute euskaldun langilerian**



Julen MITXELTORENA
LAB

UGT eta CCOO,
CEOE eta CEPI-
MERen artean
egindako akor-

dia baloratzeko, lehenik, aipa-
tu Patronalaren interesa dela
Erreformen Erreforma, 1994an
jarritako Erreformarekin etzire-
la nahiko konforme eta Langile
Estatutua borobildu beharra ze-
goela. Bertzalde, Estatuko sindi-
kalgintzaren sinesgarritasuna nolako
den ikusirik zerbaiten beharra
zuten protagonismo pisket berres-
kuratzeko. Negozietak Estatuko
sindikatu eta Patronalaren artean
izan dira. PP Gobernuak ez du
desgasterik izan. Hagitz erraza
izan zaio Gobernuari akordioari
oniritzia ematea, nortzuren artean
egina izan den ikusirik. Gehienetan
bezalaxe lan baldintza kaxka-
renetan daudenak jasoko dute
honen ondorio latzenak; langa-
bezia daudenak, bolada bateko
lana dutenak... Egunetik egu-
nera garbiago ikusten dugu LA-
Betik, euskaldun langileok ber-
tako harremanetako aukera izan
behar dugula. Ezin dugu lasai
gelditu gure bizkar egiten diren
Akordioak holako eragina du-
tenean euskaldun langilerian.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittirria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzelaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarratasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

BOTA BERTSOA



Txapelari

Xabier SILVEIRA

Neurria: Hamarreko Itikia

*Bere atzetik nuen
hainbertze denbora
azkenean iritsi
zaidala ondora
kezka batek ordea
narama zulora:
orain erraza edo
zaila izango da
burua ez joatea
txapeletik gora.*

*Nahiz (e)ta piztu zaizkidan
esperantza franko
ilusio hutsa dela
onartu beharko
denbora pasako da
enteratzerako
ea balio duen
adornotarako
eta hautsa kentzeko
baino gehi(a)gorako.*

Aresoko eskolari
buruz

Jakin dugu igandean, apirilak 6, alkate jaunak eskola berri-
tzeko egin den konponketa-
ren inaugurazioa egin nahi due-
la. Hau dela eta Guraso elkar-
teak adierazi nahi du, lehenik
nola lortu ditugun hobekunt-
zak.

Irailean eskola hastean bai gu-
rasoak bai irakasleak, kontu-
ratu ziren instalazioak ez zire-
la nahikoak, eta eskubiko trin-
ketea ezin zela erabili. Egoe-
ra hau konpontzeko asmotan
soluzio merke eta sinpleena
proposatu genuen, baina al-
katearen egoskortasunarekin
topo egin genuen. Badakigu
denok zer nolako lanak eta zail-
tasunak izan genituen. Hala
ere, hau dena lortu zen:

- 6. maila Areson egitea.
- Eskubiko trinketea hustu eta irekitzea.
- Ezkerrekoa gimnasioa bihurtzea.
- Eskolako liburategia, momen-
tu honetan osatzen ari dena.
- Eta pisua, legez, eskolaren
barnean gelditzen da, erabil-
tzeko prest, bertan egindako
lanari esker.

Ez dugu ahazten hau guztion
lana eta ahaleginekin lortu du-
gula. Trinketeko argia eta li-
burutegia ezik berrikuntza ia
bukatuta dago. Zorionak guz-
tiori!

Merezi duen inaugurazioa egi-
teko Eskola Kontseiluan, uda-
la, Guraso Elkarte eta ira-

IRAKURLEAK MINTZO

kasleen artean pesta presta-
tzea erabaki zen. Baina bapa-
tean alkateak bere kabuz, jai-
ren eguna aukeratu du, beste
bi kideak kontutan hartu ga-
be. Oporretan gaudenez ez du-
gu pilota partidua eta dantza
prestatzeko denborarik izan.
Horregatik Guraso Elkarteak
bi asteko atzerapena eskatu
dio alkateari, baina honek be-
rriro ere hitzegiteari ezezkoa
eman dio, "me importa un ble-
do el consejo escolar" eta "es-
toy hasta los... de democra-
cia" esaten beste erantzunen
artean.

Alkate jauna! Ongi dago uda-
lak ospatu nahi izatea, hala ere
denon artean prestatutako fes-
ta izan beharko lukeela uste
dugu, jakina! zu ere gonbida-
tuta zaude.

ARESOKO
GURASO ELKARTEA

Maiatzak 1, ospatzeko
gutti, aldarrikatze-
ko aunitz

Prekariatatea, zabor kontra-
tuak, aldi baterako lan enpre-
sak (ETT), hitzarmen uste-
lak...ESPLOTAZIOA.

Hau da gazteon errealitate gor-
dina. Bidegabekeria nagusi den
munduan bizi gara. Etekin me-
taketaren aldeko apostu itsuak,
bide txikitzaileak sortu ditu non
gazteok duintasun oro galdu
dugun, ekoizpen tresna bihurtu-
z.

Gure botere ekonomikoan in-
teresen arabera egindako
hitzarmen sozialak, ustelduri-
ko sasisindikalistak laguntza-
rekin, 3. mundu batetara er-
besteratu dute langilegoa. Etor-
kizunerako itxaropen oro za-
puztuz, iluntasunean bilduriko
orainaldi batetan murgilduz.
Erabaki gureak urrundu eta bu-
rokratizatzearekin batera, lan-
gilegoak bere burujabetasuna
galdu du egoera errukarri ba-
tetara eramanez.

Gizarteko partaide guziak kon-
tutan hartuko duen hitzarme-
na behar du eta ez interes in-
dibidual batzuen neurrira egin-
dako. Justizia soziala helbu-
ru, eta egoeraren hausnarke-
ta kritikotik abiatuta egokia-
goak izanen diren garapen ere-
duei eten behar diogu, etorki-
zun beltzean kolorezko mar-
golarietan bihurtuz.

BAZTANGO GAZTE ASANBLADA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

triki trako

**Haur eta gaztetxo-
arropa** (0tik 16 urtera)

Tfnoa/faxa:
943-619634
Juan Arana
galeria, 10
IRUN

Jaioberriendako artikulak:

Seaskak, kapazuak, saskiak, haur-
kotxeak eta zure haurtxoarendako behar
duzun guzia.

 **mugan**
Mugan Elkarte-
ko komertzioa

Bisita gaitzazu, harrituta geldituko zara.

 **Pello APEZETXEA** Etxalartik

Euskal Eliz Probintzia: politika eta erlijioa



Eliz Probintzia zer den azalduko dut lehenik, bartzuentsat ezezaguna izan daitekeelakoan.

Elizbarruti edo diozesi multzo bat biltzen duen eremuari deitzen zaio Eliz Probintzia; Andaluzia da eliz probintzia, Katalunia da bertzea, Extremadura... Ikusten ahal denez, izaera kultural berdintsu edo antzekoa duten elizbarrutiak biltzen dira eremu haundiago horretan.

Duela hogeitatu urte, Espainiako apezpiku Elkarteak Batikanoari igorrita-

507 apezak Eliz Probintzia egokitze eskatu du, Bilbo, Iruñea-Tutera, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiak hartuz

ko proposamenen artean, Hego Euskal Herriko lau elizbarrutiek eliz probintzia osatzea onetsi zuen. Izan ere, mementu hartan arrunt bertzelako antolamenduan sartuak zeuden euskal elizbarrutiak, Araba eta Bizkaia Burgos eta Santanderrekin elkartuak, Gipuzkoa eta Nafarroa, berriaz, Jaca eta Kalahorrarekin. Erran beharrik ez, diozesiak horrela elkartzean bata bertzearenganako izaera antza errespetatu beharrean zapaldu egiten zuela. Francoren denborak ziren. Eta arrazoiak, erlijioari baino gehiago, diktaduraren politikari komeni zegozkionak izan ziren. Urteak joan dira, diktadura joan zen, demokrazia deitutako sistemak dikta-

dura ordeztu du, baina Euskal Herriari dagokion eliz probintziak orduko berberetan segitzen du, orduko mugari eta partaide berekin. Zein dira, Eliz Probintzia oraindik horrela mantentzeko argudioak? Sorrrera eman zioten argudioak politikoak izan baziren, bertze lurraldeetan ez bezalakoak, sorrera desegoki hura gaur mantentzeko argudio politiko haiek bizirik irauten dutela pentsatzera garamazki. Hau da, gai honetan gaur ere irizpide eta ikuspuntu politikoez agintzen dutela.

Duela egun gutti, Euskal Herriko 507 apezak Eliz Probintzia behingoan egokitze eskatu du, Iruñea-Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiek osatzen duten eremua hartuko lukeena. Luzatu ga-

be, Elizako arduradunek ere Batikanoara beren iritzia eta proposamena bidali berri dutela erran digute. Ez, ordeza, proposamen bakarra, orain 20 urte igorritakoa, baizik eta bigarren proposamen hau ere bai: lau elizbarrutiak eta gainera Errioxa barnean izanen lituzkeena. Nafar Gobernuak kezka azaldu du, ea eliz probintziaren aldaketa horietarako erlijio arrazoiek bultzatzen ote duten, edo eta politikoez ere zerikusirik baduten. Bilbo Burgosekin lotzeko, fedeak agintzen zuen edo ez pentsatzeak, nola ez die lorik kendu jende hauei hainbertze urtez? Errioxa euskal Eliz Probintzian sartzea, zertan oinarritzen ote da?

 **Pepi OLAETXEA** Elkarriko kidea

Nafarroak erabaki nahi dugu gure etorkizuna



Elkarri, elkarrizketa eta akordioaren aldeko mugimenduen us-tetan Nafarroa eta EA-

Eren arteko Lankidetzak Akordioaren eta Lankidetzak Iraunkorreko Organoaren edukia bakerako pausu interesgarria eta baliogarria da, arazo honek norabide berria hartzen duelako.

Antzinako kontsentsuzko gobernuak onartutako prozesua UPNk hautsi du PSN-PSO-Eren laguntzaz, modu makurrean edukiarri nahiz formari dagokionez eta gainera inolako alternatibarik eskaini gabe. Atzera pausu honen aurrean Elkarririk bertze ahalegin bat egitea erabaki zuen, berak ordezkatzeko duen gizarte zibilaren izeanean. Nafarroak gaintzeko euskal lurraldeekin eduki beharreko harremani buruzko eztabaida kanpaina bat martxan jarri zuen.

Kanpaina akautu ondoren, Elkarririk mugimenduen Ezker Batuaren bidez proposamen bat egin zuen Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Gobernuak herri kontsulta bat egin zezan nafar gizartean urte honetan bertan. Proposamena funtsean honako hau da: "Ea jendea bat datorren Nafarroako Gobernuak EAEkoarekin egiten lukeen hitzarmen batekin, harre-

man iraunkorra lortzeko, baina beti Nafarroaren autonomia errespetatuko lukeena".

Baina saiakera hau ere UPNk PSNren laguntzarekin atzera bota du. UPNk erraten du Nafarroan ez dagoela auzi politikorik, dena konponduta dagoela Foru Hobekuntza egin zenez geroztik.

Agertzen den arazoa honakoa da: Ez dute ezer entzun nahi. Politikoez ia egunero gogoratzen digute hemengo auziak eta

UPNk erraten du Nafarroan ez dagoela auzi politikorik, dena konponduta dagoela Foru Hobekuntza egin zenez geroztik. Agertzen den arazoa honakoa da: ez dute ezer entzun nahi. Politikoez ia egunero gogoratzen digute hemengo auziak eta gatazkak nafarrek erabaki behar ditugula, eta ez bertze inork. Bistan dago errealitatea ikusi nahi ez dutela.

gatazkak nafarrek erabaki behar ditugula, eta ez bertze inork. Bistan dago errealitatea ikusi nahi ez dutela.

Dena dela, gizarte mugimendu honek lanean segituko du Nafarroak eta gainerako euskal lurraldeen etorkizunak ez delako inolako oztoporik behar XX. mendearan amaieran, gure inguruan hainbertze mito erortzen ari diren garai honetan.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria 97-IV-13

«Bertsolari aunitz euskara ikasten ari dira, eta Gipuzkoa eta Bizkaikoak ditugu eredu. Pena izan da bertze eredu bat ez izatea, gehiago ez ikastea Xalbadorren bertsuetatik edo Iparraldeko eredu horretatik»

Mikel ALTZUART
Arizkungo bertsolaria
Egunkaria 97-IV-13

«Elkorok kuadroko ezker onena dauka eta ez du balio lauean pilota baztertua uztearekin. Gogor astindu behar zaio pilotari eta ahal denean dejada bota, Titinekin ez baitu inolako zerikusirik».

Inaxio ERRANDONEA
Alkaiagako pilotaria,
finalerdiaren aitzinetik
Egin 97-IV-18

- ◆ **Iñaki Urdangarinen lekuan jarriko al zinateke?**
- ◆ Ezta munduko diru guztiarengatik ere.
- ◆ **Txiskolan izandako esperientzia nola baloratuko zenuke?**
- ◆ Politta, zeren jende asko ezagutu dugu.
- ◆ **Telebistak eman dizun ospeak izan du eraginik emakumeengan?**
- ◆ Ezin naiz etxetik atera, autografoak firmatzen pasatzen dut egun guziaz, ja, ja!
- ◆ **Langile ebentuala izanik, ontzat ematen al duzu enpresari eta sindikatuek sinatutako akordioa?**
- ◆ Inondik ere ez, baina onartzea beste erremediorik ez dugu.
- ◆ **Zein da zure sex-sinboloa?**
- ◆ Cristina Almeida.
- ◆ **Zer dakizu Andoni Egañari buruz?**
- ◆ Bertsolaria dela.
- ◆ **Eta Barricadari buruz?**
- ◆ Asko, beraien diska mordo bat badut eta.
- ◆ **Kanpo lanean ikusten zaitugu, baina etxean amari laguntzen al diozu?**
- ◆ Oso tarteka, baina saiatzen naiz.
- ◆ **Azken ametsa zeinekin edo zerekin egin zenuen?**
- ◆ Kariben nengoela, palmera baten azpian, hamar mulatarekin.
- ◆ **Osasunari zer gertatzen zaio?**
- ◆ Dena aldatu beharra dago. Direktibatik hasi eta jokalariekin bukatu. Eibarren ejenploa segituko nuke.
- ◆ **Naomi Campbell, Claudia Schiffer edo Ane Igarteburu?**
- ◆ Ane Igarteburu, besteak bezain polita da eta gainera, eusko-labelarekin.
- ◆ **Nola betetzen dituzu zure ordu libreak?**
- ◆ Denetatik egiten dut, kirola, ehiza, musika, eta batez ere taberna.
- ◆ **Zure marka zenbat gaupasetan daukazu?**
- ◆ Mordoxka bat.
- ◆ **Patilak zeren truke moztuko zenituzke?**
- ◆ Aste bete borda batean Ane Igartebururekin pasatzearen truke.



Imanol LEGARRETA
Goizuetako Txiskolaria
GOIZUETA

ttipi-ttapa



631188

Zure
publizitaterik
onena



LAN ARTISTIKOAK
EGURREAN EGINAK

- ✦ **TAILA • TORNEAKETA • MARKETERIA**
- ✦ **NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK:**
- Baseri estilokoak, beste estiloen erreproduzioak, Diseinua.
- Zaharberitze-lanak.
- Zahar itxura akaberak.
- Tapizeria.

✦ Telefonoa: 943 - 63 90 00 • IRUN ✦

Ostargi
Optika

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

PIKABEA
piñonak

Molinerro drogerian galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

Bertako gazta kanpoko esnearekin egiten dela salatu du EHNEK

Erronkari eta Idiazabalgo Jatorri Izendapenetan batez ere

Erronkari eta Idiazabalgo Jatorri Izendapena daramaten gaztak egiten dituzten Enaquesa eta Vasco-Navarra enpresek, astean gutienez 25.000 litro esne ekartzen omen dituzte Frantzia eta Gaztelatik, Mikel Petrirena, EHNEko lehen-dakariak salatu duenez. «Honek, araudia betetzen ez duen 100 tona gasna egiten dela erran nahi du», sunbildarraren ustez.

Prensaurrekoan erran zenez, latxa ardiaren esnea behar da Erronkari eta Idiazabalgo Jatorri Izendapeneko esnea egiteko eta hori ez da betetzen kasu hauetan. Inportatutako esnea litroko 15 eta 20 pezeta merkeago erosten omen da eta honek «sektorea bera arriskutan jartzen du» EHNEren arabera.

Petrirenak adierazi zuenez, «Jatorri Izendapenek gure gaztek kalitatea edukitzeko eta ezagunak izateko baliok behar dute. Baina



Jatorri Izendapen araudiaren kontrakoa da latxa arrazako ardiaren esnea ez den bertze esne bat erabiltzea

Argazkia: EGIN

abantaila horiek artzainari bueltan etorri behar zaizkio, bere lanarekin eta izerdiarekin lortu baita fama hori». Arrazoi honegatik, «ez dugu utziko egunetik egunera, izerdi eta esfortzu ikaragarriarekin irabazitako izen ona, enpresa batzuen irabaz gosea eta errendimendu eta errentagarritasun azkarra bilatzeko nahia-gogoarengatik hankaz gora joatea».

«ESNE LITROA 105 PEZETATAN SALDUZ EZ DIRA PRODUKZIO GASTUAK ESTALTZEN»

Urtarrila eta otsailan ardi esne litroko 105 pezeta ordaindu da banazbertze. «Honek ez du produkzio kostuak estaltzeko ere ematen, eskulana kontuan hartu gabe 110 pezeta ingurukoa baita», Lurdes Indaburu, EHNEko teknikoak segurtatu zuenez. Joan den urtean 135 pezeta ordaindu omen ziren.

Aurten, ordea, gasna egiten duten enpresek ez dute gutieneko preziorik ezarri eta honek, pentsuen prezio igotzearekin batera, «Nafarroako mendialdean dauden 600 famili-esplotazio ttiki desagertzeko arriskutan paratuko ditu». Kanpaina honetan, milioi erdi galduko du baserri bakoitzak banaz bertze.



Nafarroaren Eguna egundean ospatuko da Baigorriin

Igande honetan, apirilak 27, Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorriin, beti bezala Basaizea elkartearen antolokuntzapean. Hementzigarren edizio honetako ekitaldiak, hale-re, larunbatean hasiko dira, musika klasikoko kontzertu batekin. Nafarroaren Egunaren ondotik, asteartean Alduden, Baztan, Erro eta Baigorriko artzainen arteko harremanei buruzko solasaldia burutuko da. Maiatzaren 1a haurrei eskainiko zaie, 2an bertso afaria ospatuko da Ortzaizen eta 3an musika kontzertua izanen da.

Halere, aurtengoan Nafarroaren Egunaren inguruan, «nafartasuna berpizteko» zenbait ekitaldi antolatuko dira. Dabiltza Nafarroa osoko hainbat elkarte, tartean Berako Gure Txokoa edo Baztango dantzariak. Elkarte hauen helburua, merindade bakoitzean zerbait egitea da, «elkar hobekiago ezagutzeko». Honela, ekonomia, historia edo gaur eguneko bizimoduari buruzko eztabaidak, solasaldiak eta gisako ekitaldiak antolatuko lirakeen.

Dia % Autozerbitzua deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

TOP CLASS ENGLISH



INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA
4 URTEK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK

Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESACA • Bittiria Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

Bixente Goia izanen da Gure Txokoako lehendakari berria

Sei lagunek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea

ASIER GOGORZA

Apirilaren 11n egindako Batzar Orokorrean zuzendaritza batzordea osatua gelditu zen, eta Bixente Goia aukeratu zuten lehendakari. Berekin batera, Fernando Berasain, Javier Pacheco eta Julen Lekuona egonen dira zuzendaritza taldean, lehendakariorde bezala. Iamotenean egin behar diren moldaketak izan ziren bilerako gai nagusiak. Alde batetik, teilatua berritzeari lehentasuna eman zitzaion, zura guztiz usteltzen ari baita eta itaisurak no-nahi daudelakoz. Gela hori moldatzerakoan, edo goiko pisuko bertzeren bat Kaxerna Aisialdi Taldeari uzteaz solastu ziren, hauek ludoteka bat martxan paratzeko intentzioa dutenez. Horretaz aparte, etxearen lehenbiziko pisuraino goitzeko ranpa bat egiteko beharra azpimarratu zuten bilerrarat agertu ziren guziek eta gibelaldeko lorategia pixkot txukuntzeko asmoa ere azaldu zuten.

Bertzalde, iamoteneako ostatuari ze erabilera eman ere eztabaidagai izan zuten. Jakinen duzen bezala, azkeneko urteetan galera handiak izan dira



Gure Txokoako zuzendaritza batzordea osatuko duten kideak. Ezkerretik eskuinera: Belen Arribillaga, Fernando Berasain, Bixente Goia lehendakaria, Josema Huizi, Javier Pacheco eta aitzinaldean Julen Lekuona. Lehendakari berriak adierazi duenez, zuzendaritza berria «talde lanean oinarrituko da, nire aldetik ez baitut pertsonalismorik nahi»

Argazkia: Jose M^o Telletxea

ostatuan, zenbaitek kontsumitzen duena ez duelakoz ordaintzen. Arazo horri zein irtenbide eman eztabaidatu eta gero, proposamen desberdinak agertu ziren, ostatu bezala idekitzea, ostatu eta elkartea bereiztea, bazkide bakoxtari txartel elektronikoko bat ematea...

Azken erabakia zuzendaritza batzordeak du, baina proposamen guzti hoiak kontutan hartuko omen dituzte.

Kirol instalazioak hobetzeko dirulaguntza eskatu du Udalak

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria sailako kontseilariak, kirol instalazioetan inbertsioak egiteko luzatutako dirulaguntza deialdiari erantzunez, zenbait lan egiteko beharra ikusi du Udalak. Lehen tasunen artean udal igerilekueko hobekuntza, frontoiaren

konponketa eta udal polikiroldegiko gimnasioaren egokitzea ezarri ditu Herriko Etxeak. Inbertsio hauek egiteko dirulaguntza eskatu da eta egin behar diren obren memoria eta eskatutako gaineko dokumentazioa igorriko zaio Kirol eta Gazterien Institutuari.

flash

❖ **Udal aurrekontuaren** onarpena bertze baterako utzi zuen udalak. Zirriborroa zertu ondotik, aurrekontu-sail batzuk aldatzea beharrezkoa dela ikusi zuten udaleko kideek. Honela, aurten zenbait inbertsio egingen ez direnez, kreditua ere guttitu egingen da.

❖ Udal zergak ordaintzeko epea

Martxoaren 14tik maiatzaren 2a arte zabaldua dago iazko 4. hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu erre-kargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

❖ Alkate-orde berria

Idoia Goñi Lasarte izanen da Herriko Etxeko lehen alkate-ordea. Eraberean, udaleko ordezkaria izanen da Musika Eskolan, bietan ere Fermin Garcaren lekua hartuz.

❖ Gazte-jokoak

Iarunbata honetan hasiko dira. Inaugurazio ekitaldia Altzateko plazan egingen da arratsaldeko 7,30-etan, eta ondotik Patinoztopo proba etorriko da.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GOZATEGI - JAKONE

Altzate, 19 • 630786 •

250 dantzari arituko dira maiatzaren 4ko Euskal Jaian

Tantirumairu dantza taldeak antolatuta

AITOR AROZENA

Maiatzaren 4an ospatuko da Tantirumairu dantza taldeak, Herriko Etxearen eta ikastolaren laguntzaz antolatutako Euskal jaia. Urtero bezala, hainbat dantzari -250 inguru-, musikari eta laguntzaile bilduko dira. Herriko bi taldeekin batera, Lasarte-ko Erketz, Amurrioko Aiala eta Irungo Txingudi ikastolako dantza taldeak ikusteko aukera izanen da.

10,30etan txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. Bitartean, ikastolan hameketakoa eskainiko zaie egun honetan parte hartuko duten neska-mutikoei. 11,30ak aldera, dantza taldeak herrian barna desfilatuko dute, bakoitzak bere ibilbidea betez. Eguerdiko 12,30etan talde guziek beraien emanaldia eskainiko dute plazan -ona egiten badu, bertzenaz frontoian-. Gero,



Mallorcara bidaia Tantirumairu dantza taldearen eskutik

Tantirumairu dantza taldeak zozketatu duen bi pertsonendako Mallorcarako bidaia, 2.020 zenbakiarekin Inaxi Pikabea lesakarrari egokitu zaio.

Argazkia: Karmele

bazkaltzeko haurrak etxetan banatuko dira, arduradunak eta txistulariak jatetxe batera joanen diren bitartean.

Arratsaldeko 5,30etan, *Kiki, Koko, Moko eta Flax* pailazoan ikus-

kizuna burutuko da plazan eta akautzeko, trikitixa izanen da. Antolatzailerak adierazi dutenez, oraindik segurtatzerik ez badago ere, artisauak eta talo-egileak ekartzeko asmoa dute.

CSiren pribatizazioa udazkenara aitzinduko omen du Madrilgo Gobernuak

Repsolen salmenta ongi atera dela ikusita, Lesakan lantegia duen CSI konpainia publikoaren salmenta aitzindu egingen du Espai-

niako Gobernuak, Josep Pique Industria ministroak ziurtatu duenez. Udazkenean edo beranduen heldu den urtearen hasieran para-

tuko dute merkatuan, «*aurrezki haundia dagoela probextuz eta horrek inbertsio gaitasuna badagoela adierazi nahi duelako*».



Rafa Maritxalar herri-tarra aisa nagusitu zen Lesakako Herri laisterketaren 5. edizioan. Aipagarriena, halere, partehartzea izan zen: 559 korrikalari.

flash

Trafikoko arauhausteak

Apirilaren 15etik aitzinera, ongi aparkatuta ez dauden ibilgailuak salatzen ari dira albintek. Dago-kion espedientea tramitatu ondotik, arauhausteei isuna edo multak ezarriko zaizkie. Alkateak bando baten bidez adierazi duenez, «nahiz eta orain dela gutti herria behar den bezala seinalizatu eta albintek behin eta berriro adierazpenak egin, gaizki aparkaturiko ibilgailueak eta bertze zirkulazio arauen hausteak eraginiko arazoak segitzen dute». Ondorioz, «bidezkoa da indarrean dagoen arautegia zorrotzago aplikatzea».

Herri-lurren eskualdatzea

Herriarenak ziren 236m², Luis Irazokik trenabide zaharrean zituen bertze 353 metrorengatik aldatuko ditu udalak, Nafarroako Gobernuaren baimena jaso ondotik.

2.728 biztanle

zituen Lesakak joan den urteko maiatzaren 1ean, udal errol-daren arabera. Horietatik 1.293 emakumezkoak ziren eta 1.435 gizasemeak. Gero eta jende guttiago bizi da herrian, azken zentsoan 2.756 lagun baikin.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

BEREAU
 jatetxea • Hotela
 Lesakako Bidegurutzean
 Tfnoa: 62 75 09 - LESAKA

INAXIO JANARIDENDA
 Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
 Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

ETXALAR

Landagain eskolak irratsaioak egin ditu Xorroxinek utzitako tresnekin

Apirilaren 8tik 11ra izan dira

PELLO APEZETXEA

Aste Santuko oporrak bukatu bezain laister, irrati lanetan sartu eta ordubeteko saioa eskeini dute Landagain Eskolako haurrek, aintzineko urteetan bezala, Xorroxin Irratiaren tresneria eta laguntzari esker. Kanpoko eta herriko berriak, jokoak, elkarrizketak, etabar izan dira saioen edukia. Eta haurrek mikrofono aintzineko trebetasuna lantzeko aukera probexu dute. Aurten, behar bada, azken bi egunetan sumatu diren akats teknikoek ilundu dute ikasle eta irakasleen lana, ez baitzen egoki entzun.



Partxis txapelketako partaideak

Neguko partxis txapelketan parte hartu dutenak ditugu argazkian. Irabazleak denak izan badira ere, elkarrekin ordu onak egin baitituzte, puntuz lehengoak Behekozubiko Milagros eta Xaxineko Feliziana izan dira. Pello

Ipuin topaketarako deia zabaldu da...

haurren artean. Oinarriak eta baldintzak azaltzen dituen paperak banatu dira, udaberriak

haur eta nerabeen iduripena eta lan gogoak berrituko dituelakoan. Maiatzean bilduko dira ipuin idatziak, eta ekainean ezagutzera eman.

Dantza ikastaroa

Aurten ere dantza ikastaroa gauzatuko ote den iduri du. Udaltzarak Iruñera dirulaguntza eskatu du, kostuaren er-

dia izan dena. Bertzea hemen bertan nola ordaindu ikusten ari dira egun hauetan. Ea nola gogo agertzen duen jendeak.

flash

◆ **Pilota plazan** moldatze-lanak eginen dira, bi milioi eta erdi inguru kostako direnak.

◆ IKaren euskara ikastaroa

Heldu den udarako euskara ikastaroa Etxalaren antolatze asmotan da IKA, Landagain eskolako gelak horretarako eskatu baitira.

◆ Lesakako Beti Gazte elkarteak

segituko du kirol koordinatze lanetan, orain arteko baldintza berdinetan.

◆ Hirigintza planeamendua berritzeko

hiru milioiko laguntza jasoko du Herriak Nafarroako Gobernutik: 2.100.000 pta. 1998an jasoko ditu eta gainerakoa 1999an.

◆ Gizarte langilea aukeratzeko...

lehiaketa da egunotan. Famili langile bi lanpostu ere lehiatzen dira.

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
☎ 627573 • LESAKA

koxkonta
Sagardotegia zabalik
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
SAGARDOTEGI MENU BEREZIA
☎ 635290
ETXALAR
ASTEARTETAN ITXITA
Horizoa sagardo orara, Pertsonako 1950 Pta. (2 pertsona gutxienez)
Bakailu Tortila
Idi tuletta
Gasna, menbrilloa, intraurrak eta sagardoa nahi adina
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - **LESAKA**

IGANTZI

Zenbait bideren moldaketa sartu da Hirurteko Azpiegitura Planean

595 biztanle daude Igantzin errolda berriaren arabera

OSKAR TXOPERENA

Nafarroako Gobernuak zenbait inbertsio eginen ditu Igantziko bideak moldatzeko onartu berri duen Hirurteko Plangintzaren arabera. 12 milioi inguruko aurrekontua dute aurrean egin beharrekoak. 1999an egin beharrekoa berri, erreserban dago, 15 milioiko aurrekontuarekin. Isasmendi, Galaria, Piedade gaina eta Irisarri inguruan daude moldatu beharreko bideak.

Herriko Etxeko deialdiak

Bi deialdi zabaldu ditu Herriko Etxeak hurrengo egunetarako. Administrazio lanpostuarena Boletinerara bidali berria du eta bertan ateratzen denetik 30 egun pasatu beharko dute hautagaien izen-ematea



Joxe Ripiau taldeak Biltokiko lokala bete zuen

Gogor hasi da lanean Bortzirietako Erausian gazte taldea. Apirilaren 12an Joxe Ripiau taldearen kontzertua antolatu zuten Igantzin eta ttikia gelditu zen Biltokiko lokala joan zen jendearentzako.

Argazkia: Oskar

hasteko.

Bertzea, udan pisizinan eman beharreko zerbitzuarena da. Lehiaketa honetarako izen ematearen epea maiatzaren

9an akautuko da eta aurrean berrikuntza handia dauka zerbitzu honek, aldagelak, ostatua eta sarrerara zaintzea izanen baita egin beharreko la-

na, piszina eta bere inguruz arduratu gabe. Dena den, lan hau egiteko prest dagoenak baldintzak hobekiago ezagutzeko Herriko Etxera

agertzea du hoberena.

Zenbait dirulaguntza ere onartu dituzte zinegotziek azken bolada honetan: eskoletako ski kanpainari, 52.400 pezeta; elizari, 200.000 pezeta; Korrikari, 35.000 pezeta; Guraso Elkarteari (Gimnasia ikastaroa), 52.500 pezeta; dantzari taldeari, ispilua erosteko laguntza...

Guraso Elkartearen bozketa

Rexu Irigoien eta Miguel Angel Retegi izanen dira hemendik aitzinera Guraso elkartearen partaide berriak, hala erabaki baitzuten gurasoek apirilaren 8an egindako bozketan.

❖ **Larunbat** honetan Biltoki elkarteak **Basaranara** antolatu duen bidaiaren irteera goizeko 9,30etan izanen da herriko plazan.

Beko Errota
 Lore eta landareak
 Frain auzoa • 63 78 26
 LESAKA

ZALAIN
 J A T E T X E A
 Zalain Auzoa
 63 11 06
 BERA
 EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

OKANE
 HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Zalaino
 LESAKA

barnek s.l.
 Sukalde mobileen fabrika
Zuzeneko salmenta
 Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
 Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

TXIRULA
 Albistur, 39-K
 627542
 LESAKA
 • bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •

EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frekuenta
zugandik
hurbilago
 Bittiria, 67 - 637264



Berako Euskara Batzordeak **Berako Erranera Zaharren Bilduma Lehiaketa** antolatu du, herri honetan erabili izan diren eta erabiltzen diren euskal erranera zaharrak biltzeko helburuarekin. Hona hemen lehiaketa honetan parte hartzeko bete behar diren baldintzak:

1. Egile-egileak:

- Lehiaketa honetan Beran sortu edota bertan bizi diren 16 urtetik goitikoek parte hartzen ahal dute.
- Lehiaketan banaka nahiz taldeka parte hartzen ahal da.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauen erabateko onarpena suposatzen du. Ustekabeen talde antolatzailearen hitza aintzat hartuko da.

2. Bildumen aurkezpena:

- Bildumak aurkezteko epea uztailaren 31 bitartean izanen da.
- Bildumak Berako liburutegira edo **ttipi-ttapa** aldirizkarira igorriko dira. Helbideak:

Berako liburutegia	ttipi-ttapa hamabostekaria
Kultur Etxea	Herriko Etxeko Plaza, 1
Eztegara pasealekua	31780 BERA
31780 BERA	

- Bildumak laukoizturik aurkeztuko dira, DIN A-4 neurriko orrietan, orrialde bakar batean, makinaz idatzita eta lerro artean bi tarte utzita.
- Bildumak (lau aleak) kartazal haundi baten barranean aurkeztuko dira, kanpoko aldean ezizen bat jarritz. Barranean, bertze kartazal batean egilearen edo taldekideen datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta NANaren fotokopia/ak) agertuko dira eta kanpoko aldean, be-

rriz ere ezizena agertuko da.
 • Ez da itzuliko aurkeztutako idazlanen original edo kopiarik.

3. Bildumen edukia:

Bilduma bakoitzak gutxienez informazio hau jaso beharko du:

- Erranera zaharrak eta bakoitzak izaten ahal dituen aldaera ezberdinak.
- Erranerek adierazi nahi dutena eta adibideak.
- Erraneraren jatorria, hau da, egileak norengandik jasotuen eta informazio emaitak buruzko oinarritzako datuak (izen-abizenak, nongoa den, adina, erabilitako bibliografia...)
- Egileak edo taldeak nahi

duen informazioa eranstean ahal dio honi.

4. Epaimahaia:

- Epaimahaiak bildumak zuzentzerakoan honako irizpide hauek kontuan hartuko ditu:
 - Bildutako erranera zaharren kantitatea eta bildumaren beraren kalitatea.
 - Aurkezteko modua.
 - Iturri-aniztasuna eta egindako bilketalana (hau da, elkarrizketa kopurua, bertako jendearekin bilketa egiterakoan edukitako harremanak...)

5. Sariak:

- Epaimahaiaren ebazpena irailaren 26an jakitera emanen da.
- Sari-banaketa urriaren 1In egingen da.
- 100.000 pezetako sari bakarra izanen da.
- Bildumen kalitatea ez bada ontzat ematen, saria eman gabe gelditzen ahal da.
- Saritutako bilduma-lanaren argitaratzeko erabakia talde antolatzaileari dagokio.

Antolatzailea:

Berako Euskara Batzordea

Laguntzaileak:



Berako Udala



Telefona 63 41 25
 ARIANTZA (Nafarroa)

ARANTZA

Herriko sei pareja parte hartzen ari dira Nafarroako eskolarteko pilota txapelketan

Ametxoko eta Azkiko plantazioetako zerrakurak xehetzen ari da norbait

ELIXABET ETA GARBINE

Eskolako hamabi hurrek, sei parejak, Nafarroako Eskolarteko pilota txapelketan parte hartzen ari da. Maila guzietakoak ari dira, benjaminak, alebinak eta infantilak. Dagoeneko lehenbiziko partiduak jokatu dituzte. Apirilaren 5ean Arantzako frontoian bi parejak jokatu zituzten beraien partiduak: Eneko eta Imanol, almandoztarren kontra aritu ziren, 7-18 galduz. Xabier eta Iñaki, Lekarozkoen kontra aritu ziren, 18-8 irabaziz. Ondoko asteburuetan ere bertze partiduak jokatuko dira.

Plantazioetako zerrakurak xehetzen...

Herriak plantazio batzuk eginak ditu Ametxoko eta Azki in-



Bortzak Bat kooperatibako kideak, jubilatua eta bertze zenbait taldek bezalaxe, Zahar Txokoa aukeratzen dute beraien bilerak eta otorduak egiteko

Artxibokoa

guruetan. Zenbait zuhaitz iaz sartutakoak dira eta bertze batzuk duela hiruzpalau urtekoak. Plantazio hauek zerrakuraz itxiak daude, bertan dauden plantak oraindik tikiak baitira eta han ibiltzen diren

aziendek jateko arriskua dago. Joan den negutik hasita, ordea, norbaitek zerrakura hausnartzen du alikatearekin.

Ekaitza elkarteak kontuak onartu ditu

Apirilaren 12an, la-

runbatez, Ekaitza elkarteak bere batzar orokorra burutu zuen. Bertan 96. urteko kontuen berri eman zen eta onartu ziren. Oraindik zuzendaritza batzorde berak segitzen du, bi urtetik behin berritzen bai-

ta. Beraz, heldu den urtean aldatu beharko da.

Junta berria Bortzak Bat kooperatiban

Bortzak Bat kooperatibak, joan den larunbatean, junta berria aukeratzeko bilera egin zuten. Ondotik, afaria egin zuten Zahar-Txokon. Batzordea osatuko dutenak Antonio Maiz, Martxelo Jorajuria, Teodoro Pikabea, Anttoni Makirriain, Trini Bergara, Puri Leiza eta Martin Legarra dira.

Herri lurren eskualdatzea

Goiarreka alderdiko lur komunaleko 1.134 metro karratu, Justo Larraldekin bi zatitan duen bertze horrenbertzegatik aldatuko du Udalak, Nafarroako Gobernuaren baimena jaso ondotik.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinatideak	Txininiak
Angelak	Ertzak
Omnia antrinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrakizak
Pilareak	

'Aburadada' Mazona
'Zahar antzekoa' Txapetako

ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

ALBERGIA JATETXEA

© 634179 ARANTZA

© 631076 • BERA

ttipi-ttapa

6.400 harpidedun
22.000 irakurle

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bitirio, 45 • © 637503 • LESAKA

Aranguren
Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leioak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

Frontoia bete zen Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalean

Xabier Silveira lesakarra suertatu zen irabazle

JOSUNE ETA ISABEL

Frontoia gainezka ageri zen apirilaren 13an, Nafarroako bertsolari txapelketa nagusiaren finalean bota behar ziren bertsok aditu asmoz etorritako jendearekin. Giro polita izan zen saioan, gehienetan ateraldi biziak eta farregarriak egin baitzituzten finalistek.

Zerbait negatiboa aipatzeagatik, finala hasita segidoan, Iparraldeko entzule batek izandako eroria, mareatu ondotik, lurraren kontra kolpatu baitzuen burua. Senpereko ospitalera eramán zuten ambulantzian, baina dagoeneko sendatu omen da.

Txapela Xabier Silveira, 20 urteko lesakarrak eramán zuen, ondotik, Jexus Arzallus eta Bittor Elizagoien Lazkanoren eskutik saria biltzen. Argazkiak: Karmele



Bertsolari txapelketa

A zer deskantsua hartu zuten bertsolariek beraien lana bukatzerakoan. Goitian, txapeldun berriaren izena aditu zenean hartutako argazkian ageri dira Legarreta, Silveira eta Estitxu Fernandez. Eskuinean, Bittor Elizagoien Lazkanoren eskutik saria biltzen. Argazkiak: Karmele



flash

Oihan enkantea Legasan

Legasako kontzejuk 100 zuhaitzeko lote bakarra aprobetxatzeko lehiaketa deialdia zabaldu du. 120,29 metro kubiko zur egiten duten haritz amerikar nahiz bertakoak eta bagoak daude lotean. Proposamenak maiatzaren 6ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Legasako kontzejuko idazkaritzan.

Oihanberritza Bidasoa-Berroango mendietan

Bidasoa-Berroaran mendietako Administrazio Batzordeak Francisco Alzuri arantzarrari adjudikatu dio Añerdi-Arrutela inguruaren oihanberritze lanak, 8.105.434 pezetaren truke.

Sunbillan

hamar neska-mutikok eginen dute lehen jaunartzea igande honetan.

ALDABE TAXIA
DONEZTEBE
 © 450687

BELARRA
 OSTATUA - JATETXEA
 Ameztia karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 45 03 06

J. RAMOS
 Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
 © 631342 BERA • © 637172 LESAKA

ARIN ASEGURUAK

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21
 Tel.-Fax: 450266
 DONEZTEBE

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE


Eskolako obrek 61 milioiko aurrekontua dute

Kalefakzioa jarri eta DBHko institutua moldatuko dira

TXEMA ALDABE

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua haunditu eta moldatzeko lanak kontratatzeko lehiaketa-deialdia luzatu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura sailak. Hasierako aurrekontua 54.210.999 pezetakoa da (BEZa barne). Proposamenak datorren astelehena, apirilak 28, baino lehen aurkeztu beharko dira Kultura Departamentuko edo Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorraren bulegoetan. Proposamenak maiatzaren 5ean, eguerdian zabalduko dira.

Bertzalde, ikastetxe



Itxura polita hartuko du ikastetxeak eginen diren moldaketekin Artxiboa

publikoko kalefakzioa hedatze-lanak egiteko deialdia ere luzatu du Departamentu berak.

Hasierako prezioa 7.050.617 pezetakoa da (BEZa barne). Proposamenak maiatzaren 10a

baino lehen aurkeztu behar dira leku beretan. Akitzerakoan itxura polita izanen du eskolak.

Euskararen transmisioari buruzko erakusketa eskolako gimnasioan

Erakusketa interesgarri bat ikusteko aukera ederra izanen da apirilaren 28tik maiatzaren 1era eskolako gimnasioan. "Ahoz aho, belunez belau" izeneko erakusketak euskararen transmisio bideak azalduko ditu lau arlotan banaturik: fami-

lian, eskolan eta gizar-tean, hain zuzen ere.

Eskol orduetan eskolakok izanen dute ikusteko aukera, eta kanpo-koek, berriz, eskol orduetatik kanpo, hau da, astelehen eta asteartean 5,30etatik 8etara, asteazkenean 4etatik 7etara eta maiatzaren 1ean

goizeko 10etatik 1etara, jai eguna baita.

Erakusketa lehenago egiteko asmoa zen, baina garraiolarien grebogatik gibelatu zen eta orain izanen dugu gure artean. Euskararen transmisioak duen garrantziaz ohartzeko ezin da aukera hau galdu.

Arria eta Belarraren arteko aizkora apostua maiatzaren 4an

Luis M^a Belarra doneztebarra eta Errezilgo Arria V.aren arteko aizkol apostua maiatzaren 4an, eguerdiko 12,30etan ospatuko da frontoian. Bakoitzak 400na mila pezeta jokatu du. Luis Marik 11 oinbiko moztuko ditu, Arriak 12.



Luis M^a Belarra

**ETXANDI
TXOKO
jatetxea**

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

**FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN**



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaleetatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**AMEZTIA
Jatetxea - Hostala**

Espezialitatea euskal
sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

ALKATE BILERA



Alkateak Yolanda Barcina kontseilariarekin Bertizen

Zaborren arazoa eta mendien aferak mahai gainean

Alkateek eskatuta etorri zen kontseilaria

TTIPI-TTAPA

Zaborren bilketa eta tratamendua da gaur egun Baztan, Malerreka eta Bortziritako herriek duten arazo larrienetako bat. Horrekin batera, mendi eta oihanekin zerkusua duten aferak ere garrantzia handikoak dira gehienetan. Gauzak horrela eta alkateen eskariari kasu eginez Yolanda Barcina, Nafarroako Gobernuako Kontseilaria etorri zen Bertizera apirilaren 15ean. Berekin batera ekarri zuen Jose Torres, Ingurugiro Departamentuko Zuzendari Nagusia. Bilerara Urdazubi, Baztan, Bertizarena, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Sunbilla, Etxalar, Arantzeta, Lesaka eta Berako alkateak agertu ziren, eta baita Oierregiko kontzejuko presidentea ere.



Yolanda Barcina,
Ingurugiro,
Lurraldearen
Antolamendu eta
Etxebizitza
Departamentuko
kontseilaria

ZABORRAK

Zer egin zaborrekin? Hori da arazoa azkeneko urteotan. Baztan eta Malerrekako

labeak arrunt gaizki daude aspalditik, eta Bortziritako zaborregia ere hemendik urte batzutura betea egonen da. Premia handiko kontua da, hortaz, alternatibaren bat bilatzea, eta hori, hemengo udalenesku dago. Horretarako, eta Hirurteko Planaren barnean, aurrean bertan 184 milioi pezeta emanen ditu Gobernuak. Bileran hitzegin dakoaren arabera, proiektuaren baldintzak finkatu bezain abudo (hila-bete bat), proiektua egiteko deialdia emanen da argitarara. Hor erabakiko da zaborren tratamenduari emanen zaion alternatiba.

MENDIAK

Alkateek behin eta berriz eskatutakoari kasu eginez, Mendietarako Zuzendaritza berriz martxan jartzea onartu du kontseilariak, aitzineko gobernuak kendu zizkion funtzioak berriro emanez. Zeladore eta hauen laguntzaile lanpostuak hornitzeaz ere hitzegin zen bileran.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77.86.53 • Parrokia 9, bajeeran

Lekuz aldatu gara!!!



BERA


Bera.

• Etxe osoa salgai, ostaltua barne



NARBARTE

Narbarte. • Etxe bakarrean pisua salgai, bere baratzearekin.



LESAKA

Lesaka. • Pisu berriak salgai. 15.000.000 pezetatik aurrera.



ITUREN

Ituren.

• Etxea eta 2.000 m²ko lur eremua salgai.



BERA

Bera. • 4 logelako pisua salgai. Kanpoaldekoa. 15.000.000 Pta.



Igantzi. • Etxe adosatua salgai.



ZUBIETA

Zubieta. • Azken pisu berria salgai. 8.000.000 Pta.



ELGORRIAGA

Elgorriaga.

• Etxe adosatua salgai.



Bera.

• 200 m²ko bajera zatigarri bat salgai.



LEGASA

Legasa. • Etxea baratzearekin salgai.



MUGAIRI

Mugairi. • Pabilioi industrialak salgai. 43.000 pta/m²tik goiti.



MUGAIRI

Oronoz-Mugairi. • Pisua salgai.



VALCARLOS

Luzaide-Valcarlos. • Borda bere belagiarekin salgai.



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten da:

1997ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, segidan seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko modua:

Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenek:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan, abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenei:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1997ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasa ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirieta, 1997ko apirilaren 1ean

Presidentea
Miguel M^a Irigoien Sanzberro

1997. URTEKO TASAK

ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era irau nkorrean bi-zi ala ez: 6.950 pezeta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 me- trora dauden baserriak: 5.910 pe- zeta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 4.860 pezeta.

1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sek- torekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okinde- giak, ileapaindegia, lan bulegoak: 6.950 pezeta.

2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari den- dak), elektragailu dendak eta far- maziak: 13.850 pezeta.

3. Merkataritza. Autozerbitzuak: 20.790 pezeta.

1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltokiak eta ja- rraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 13.850 pezeta.

2. Ostatua. 30m² baino azalera han- diagoko ostatuak eta janaridenda daukaten ostatuak: 27.720 peze- ta.

3. Ostatua. Pub eta diskotekak: 34.640 pezeta.

1. Jatetxea. Modu iraukorrean ire- kiak dauden elkarte gastronomi- koak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 34.640 pezeta.

2. Jatetxea. Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 62.350 pezeta.

1. Hostala. Hamar logela edo gu- txiagokoak: 48.480 pezeta.

2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak: 69.270 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jate- txerik gabekoak: 69.270 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jate- txedunak: 103.910 pezeta.

Lantegiak, lau langile bitarte: 6.950 pezeta.

Lantegiak, 5-10 langile bitarte: 13.850 pezeta.

Lantegiak, 11-30 langile bitarte: 34.640 pezeta.

Lantegiak, 31-60 langile bitarte: 69.270 pezeta.

Lantegiak, 60 langile baino gehia- gorekin: 103.910 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 230 pezeta metru kubikoa.

Errenta Aitorpena

Kutxak lagunduko dizu

Zure aitortpena egiteko orduan, bizkortasuna, profesionaltasuna eta tratu pertsonalizatua nahi baduzu, zatorz Kutxara.

Behar duzunari buruz aholkatuko dizugu eta zure aitortpena momentu batean beteko dugu. Deitu eta soil-soilik CLUB 10 edo CLUB EDAD DE ORO elkarteko bazkide txartelaren zenbakia adieraztearekin, ordua gordetzeko lehentasuna emanen dizugu, zuk nahi duzunean.



Gobierno de Navarra
Departamento de
Economía y Hacienda

IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FISICAS

DECLARANTE	APellidos y nombre		JAVIER GARCIA ESLAVA		FECHA NACIMIENTO	23.04.54
	Nuevo Domicilio	Calle, plaza o Avda.	Nombre de la calle, plaza o avenida			
	Localidad	PAMPLONA		VUELTA DEL CASTILLO		
CON- YUGE	APellidos y nombre					

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
RENTA

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
RENTA 1996

INFORMACION
LIBRETA DE AHORROS
REF.: 2054 / 0095

NRO. PROPIETARIOS
15708354M

REGULAR
ATENCION I.R.P.F.



NAVARROAKO AHORREZKI KUTXA



meztebeko
CRUZ
tzerian,
ate batera,
Deko
SKONTUA
nen duzu
00 Ptarik.
rerako
sketetan...

TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu



ta
meztebeko
RRISTA
rrentzeko
ppa dendan
Deko
SKONTUA.
horrela
tze 42
nertzio eta

**ESKATU BAT
ZURETZAT**

631188

DESKONTUAK

- AISIALDI AKTIBIDADEAK**
BKZ Bertiz
- AUTO TALLERRAK**
MENDAU MOTOR Doneztebe
SANPI ARAGON Doneztebe
PEDRO GARMENDIA Elizondo
DATUGELAY Elizondo
ZALAIN MOTOR Bera
- AUTO-ESKOLAK**
SEMPER Bera
- ARGAZKI DENDAK**
GOIKO Bera
AYLA Bera
MENA Doneztebe/Elizondo
ZALDUA Doneztebe/Elizondo
- ARROPA DENDAK**
SAIOA Doneztebe
J.J. PICABEA Doneztebe
TXIRRISTA Doneztebe
KAMAMILA Doneztebe
PICABEA BOUTIQUE Doneztebe
IPINGI Elizondo
COCOS Elizondo
KATTALINGORRIE Elizondo
FANTXIKE Elizondo
- EDARI BANATZAILEAK**
MANUEL TABERNA Bera
- ELEKTROGAILU DENDAK**
MARIXUS Lesaka
ALTZURI Lesaka
RADIO BIDASOA Bera
- ESTETIKA ZENTRUAK**
AMAIA Doneztebe
BEATRIZ Elizondo
MARIAN Lesaka
- KIROL DENDAK**
IPARLA KIROLAK Elizondo
ZELA KIROLAK Bera
AGARA KIROLAK Bera
M^a LUZ SPORT Bera
- LENTZERIAK**
M^a CRUZ Doneztebe
MAITE Elizondo
DENE Lesaka
- LIBURUDENDAK**
NAFARPRESS Elizondo
LEGARRA Lesaka
- MOBLEDENDAK**
AMAIUR ALTZARIAK Doneztebe
LEIZA Elizondo
- OPTIKAK**
OSTARGI Bera
- ZAPATADENDAK**
ALDI ROZAS Bera
NEREA Doneztebe
OSTIZ Doneztebe

MALERREKA

Oskorri eta Pub ibiltaria maiatzaren 9an Bordatxon

Publikoak instrumentoak jo ahal izanen ditu

TTIPI-TTAPA

Oskorri & The Pub ibiltaria ikuskizuna izanen da Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan maiatzaren 9an, ortzirala, arratsaldeko 5etatik aitzinera.

Emanaldi honetan, nahi duenari kontzertuan parte hartzeko aukera luzaten dio Oskorri taldeak, Karaoketan egiten den gisara, jendea protagonista nagusia bilakatuz. «Kontzertu demokratiko» hauen helburua hirukoitza da Oskorriko kideek adierazi dutenez: «Alde batetik musika tresnaren bat jotzen dakien

edo ikasten dabilen edozeinek bere abileziak praktikan jartzeko aukera pozgarria izatea, bertetik kantatzea gustoko duen eta bere errepertorioa sakondu nahi duenak ere aukera izatea eta azkenik euskara ikasten dabilenak, bere hizkera aberastu ahal izatea kantuen testuen bitartez».

Esperientzia berri honi, bere 25. urteurrenaren kariatzekin dio Oskorri taldeak.

Oskorri jendearen partehartzea bilatuko du Doneztebeko emankizunean



flash

Arkupeak elkarteak

gogorarazi duenez, aurtten 85 urte bete dituztenei eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bikoteei ekainean eginen zaie omenaldia. Lehenbailehen herriko delegatuari erran beharko zaio, beren historia labur bat eta fotografia emateko.

Leurtzako urtegia

zaintzen M^a Jose Zozaia Mariezkurrena arituko da uda honetan, ekainaren 15tik irailaren 15a bitarte. Aste Sainduan ere bera izan zen. Udal eta INEMen arteko akordioak kontratatua bada ere, Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Sailak ordaintzen du soldata oso-osorik.

Saldiasako telekomunikazio zentrorako

etxola eta lan osagarriak izeneko proiektu tekniko eta lanak kontratatzeko lehiaketa zabaldu du Herrilan, Garraio eta Komunikazio sailak. Hasierako prezioa 13.790.963 pezetakoa da eta proposamenak maiatzaren 12ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Iruñean, departamendu horren bulegoetan. Lanak egiteko 180 eguneko epea izanen da.

Jose M^a Legazkue

49 urteko zubietarra, Ultzamako Alkoz herriko mendi batean hil zen lan istripuan apirilaren 8an, zuhaitz batek zanpatsu zuenean.

Euskararen Astea ospatuko dute Doneztebeko eskolan

Maiatzaren 5etik 9ra, hamabi urte artekoek zuzendua

TXEMA ALDABE

Maiatzaren 5ean, astelehena hasi eta maiatzaren 9a, ortzirala, bi-tarte Euskararen Astea ospatuko dute Doneztebeko eskolan. Hainbat ekitaldi burutuko dira, hamabi urte arteko neska-mutikoei zuzenduak. Bertzeak bertze, ginkana, txotxongiloak, gimnasia, irratsaioak Xorroxin irratia eskutik, aldizkarittoa bat egin, herri kirolak edo taloak egiten ikasi ahal izanen dute aste horretan.

Akitzeko, jaialdia izanen dute, haurrek bereiak prestatutako antzerki eta kantu emanaldi batekin.



Udako kanpamenduak Elgorriagan

Azken urteetan bezala, Nafarroa eta Europa osoko gazteek osatutako lan-taldeak izanen dira Elgorriagan, bazterrak txukundu eta berritzen, kultur ondarea eta ingurugiroa berreskuratu asmoz. Uztailaren 1etik 15era, 15 eta 17 urte arteko hamar gazte etorriko dira, uztailaren 17tik 31ra, 18 eta 28 urte arteko bortz lagun etorriko dira eta adin bereko bertze horrenbertze abuztuaren 2tik 16ra.

Artxiboa

Aerobic ikastaroa Donezteben

Apirilaren 21etik ekainaren 11 artio eskolako gimnasioan aerobic ikastaroa burutuko da. Astelehenetan 5,30etatik 6,30etara egonen dira eta asteazkenetan, 7etatik 8etara. Ikastaro hau Nafarroako Aurrezki Kutxak antolatuko du. Club-10eko partaideei 4.000 pezeta kostako zaie eta elkarte horretako kide ez direnei, berriz, 6.000 pezeta. Izena emateko, dohaineko 900 208010 telefonora deitu behar da.

GOIZUETA

Umore Onako Apezetxea eta Almandozek Nafarroako pilota txapelketa irabazi dute

Udalak ejerzitoarekin kolaboratuko ez duela eta, alkatesa atxilotu zuen poliziak

ESTEBAN AROZENA

Umore Ona elkartearen pilota atalaren orain arteko garaipenik haundiena, hil honen 6an, Iruñeko Labriten eskuratu zuena izan da, cluben arteko Nafarroako txapelketa, hain zuzen.

Juantxo Apezetxea eta Jexux Mari Almandozek ez zuten zailtasun ikaragarriarik aurkitu Labritera zeraman bidean, aisa xamar irabazi baitzituzten ligaxkako partidu guziak. Hala ere, kontrarioak Paz de Zigandako Tirapu eta Goñi zirela kontuan hartuz, errespeto osoz ekin zioten finalari, baina hemen ere ez zen kolorerik izan, 8 tantutan utzi baitzuten azkenean Iru-

ñako cluba ordezkatzeko zuten bikotea.

Denboraldi osoko lanari jarritako urrezko brotxea izan da, inolako zalantzarik gabe aipatzen ari garen garaipen hau. Kontuan izan behar da, Espainiako txapelketan ere laugarren gelditu zirela goizuetarrak, emaitza ederra batez ere Ohorrezko Dibisioan lehenengo urtea zutela kontuan hartuz gero.

850.000 pezetatik gora gastatu zituen iaz Umore Onaren pilota atalak, 630.000 aipatutako bi torneoetan. Diru-sarrerera garrantzitsuenak berriz, Nafarroako Aurrezki Kutxatik, Iruñeko Gobernutik eta elkartetik bertatik datozkio,

Luis Ignacio Loiartek zuzentzen duen Umore Onaren sekzio honi.

Diapositibak

Urumea ibaiaren ingurunea erakutsiko du Mikel Eizagirrek hurrengo larunbat ilunabarrean eskeiniko duen diapositiba emanaldi batean.

Alkatesa atxilotua

Pili Untxalo alkatesa bere lantegitik hartuta eraman zuen poliziak epailearen aurrera apirilaren 15ean eta deklaratu ondoren libre gelditu zen. Espainiako ejerzitoarekin kolaboratuko ez duela esanez, udalak hartutako akordioa da atxilotetaren arrazoia.



Pili Untxalo, Goizuetako alkatesa Artxibokoa

ARESO

Kanpoko argia zabaltzeko eta bideak hobetzeko 6,2 milioi pezeta

JUANA Mª SAIZAR

1997-99 Hirurteko Azpiegitura Plangintza-aren barnean, udalak eskatutako obretako batzuk bakarrik onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Argindarra berri- tu, zabaldu eta eraman eginen da Nietoenea eta Patxin etxera (2.211.000

pezeta) eta Eguarreko Bordako bidea ormi- goiztatzeko, 4 milioi ja- soko dira. Udalak aurre- keztu eta Planetik kan- poan gelditu diren obrak berriz, Txilenea, Bela- ko, Eguarreko bidea, Nieto-enea, Felipeborda eta Iruñegi baserrietara- ko bideen zolaberritzea (21.557.000 pezeta),



Eskolako berrikuntzen inaugurazioa

Fernando apezak bedeinkatu zituen eskolako obrak Argazkia: Juana Mari

Sastinetik elizarako bidean eta Semerotik Mañenaraino, brea botatzea (7.036.000 pta), argia jartzea (2.210.000 pta) eta Herriko Etxean moldaketak egitea (70.522.000 pezeta).

Xake ikastaroa

Aste Santuko opo- rretan, Guraso elkar- te- ak antolatutako xake edo ajedrez ikastaroan parte hartu zuten ume- ak oso pozik ibili omen dira.

Okerrak zuzentzen

Azken asteotan hain nabarmen ikusten den Hale-bopp kometaren isatsa 150.000 kilome- troko luzera dauka eta ez 30 km.koa, aurreko- an aipatu bezala.

Euskal Ikasleen II. Biltzar Nazionala eginen da maiatzaren 2 eta 3an

Laurehun lagun etorriko dira asteburu horretan Leitzara

JOSEBA AZPIROZ

Euskal Herriko laurehun lagun inguru bilduko dira asteburu horretan eztabaida bat burutzeko. Unibertsitatean eta Ertainetan edo Lanbide Heziketan ari direnek aldez aurretik batzar irekietan eztabaidatu duten txostenari batzar bakoitzean egindako aportazio edo ekarpenak eztabaidatuko dituzte zentro bakoitzetik etorriko diren ordezkarien artean.

JAIALDI ETA EKITALDIK OSPATUKO DIRA ASTEBURU HORRETAN

Eztabaidaren ondoren, beraien konklusioak publikoak eginen dituzte. Hau idazterakoan, konfirmatzekoa badago ere, biltzarren inguruan zenbait jaialdi eta aktibidade burutuko dira eta hauetan parte hartzeko, asteburu horretan herrira milaka gazte etortzea espero da. Herriari xehetasunak emateko eta laguntza eskatzeko herri batzarrerako deia ere zabaldu zuten.



Herri Krosa igandean burutuko da

Igande honetan, apirilak 27, Aurrerak antolatzen duen Herri Krosa izanen da. Irteerak 10,15etan 9 urte artekoentzat, 10,30etan 10-15 urte bitartekoentzat eta 11,15etan gainerakoentzat emanen dira. Laisterketa, 2 km. dituen ohiko zirkuituan eginen da. 9 urte artekoek 800 metro egin beharko dituzte, 10-12 urtekoek buelta bat, 13-15ekoek eta emakumeek bi buelta, beterranoek hiru eta seniorrek (19 eta 30 urte artekoak) lau buelta. Sariak, seniorretan 30, 20 eta 10 mila pezeta hiru lehenengoentzat. Emakumezkoetan 15, 10 eta 5 mila. Laisterketa bukatzen duten guztxie kamiseta bana emanen diete.



Adin eta sexu mugarik ez da izanen igandeko krosean parte hartzeko

Liburuaren Eguna

Hilaren 23an Liburuaren Eguna ospatzen zelata, aurrean ere, zenbait ekitaldi prestatu dituzte kultur talde, liburutegi eta institutu-koen artean. Goizean Karrape irratan gai honi buruzko saioa eskaini dute. Institutuan berriz, ikasleek dedikatutako liburu bana oparitu diote elkarri eta dedikatorien sari-keta eginen dute. Arratsaldean, liburutegian, Juan Luis Zabala idazleak *Galdu arte*, bere nobelaren aurkezpena eginen du. Liburuaren gaiari (gaztetxeak, okupak...) buruzko diapositibak ere erakutsiko ditu eta Zabalak dedikatutako 10 liburu zozketatuko dira. Nobela honek euskaraz idatzitako liburuen Espainiako Kritika Saria irabazi berria du. Ostegunean, arratsaldekoko 5etan, 6-9 urte arteko umeentzat Trokolo taldeko kontukontalari bat izanen da liburutegian.

Plazako pilota txapelketa

5. binakako pilota txapelketan parte hartzeko hilaren 30a baino lehen eman behar da izena Plaza auto-eskolan. Maiatzaren 10ean hasiko da eta larunbatetan jokatuko dute. Bikote bakoitzak 2.000 pezeta ordainduko ditu eta arauak izena ematerakoan emanen zaizkie.

❖ **Kultur taldeak** zozketatutako make-ta Malkorreko Bixenta Berasategiri egokitu zaio.

❖ **Margarita Erbitik** ordezkatu du udal diruzaina 6 hilabetez, egindako zozketaren ondorioz.

muñeca de Trapo

IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Basa Kabi

Basa Kabi baserrian bihurtu da. Baserriko menua.....2.200 pta. Sagardotegiko menua...2.950 pta/per. Banabar jatea1.900 pta.

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

Elizatzte

ERLOJUTEGI BITXITEGIA

Nafarrentzat prezio bereziak

Landetxe Eparantza © 943.492698 **OIARTZUN**

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735

BAZTAN

Zenbait bidetako egoera dela-eta, bere arrenkura azaldu du Balleko Etxeak

Almandoz eta Belateko tunelen arteko tartea zerrakuraz ixtea eskatu du

JOSEBA IGARABIDE

Baztango zenbait bidetako egoera adieraziz, Balleko Etxeak bere arrenkura azaldu dio Nafarroako Gobernuko Herrilan sailari. Udalak zerrenda luzea aurkeztu du: Erratzuko sarrean bukatu gabeko lanek arriskua sortzen dutela; Baztango begiralekuaren aparkamenduko zolaberritzea —Herrilan sailak eginen zuela agindu zuen orain bi urte eta egin gabe dago oraindik—, Berroetatik N-121ra sartzeko bidegurutzean seinalizazio eskaxa; Almandoz eta Berroetako loturatan, Ziga eta Anizko izenak gehitzea, batez ere turismoari begira; Almandozko irteera ez egitearen arrazoiak argitzea; Berroetako bidegurutze eta Almandozko loturako base-rien egoera eta Erratzu-Gorostapolo errepedean kanalizazio lanak egitea, Ertzein inguruan.

Azkenik, lanik premiazkoena, Almandoz eta Belateko tunelen artean eta azken honen irteeran zerrakura egitea dela uste du Balleko Etxeak. Maiatzaren 1erako egin beharko lirake lan horiek, erabilzaile eta aziendei arriskurik ez sortzeko.



Iruritako ezpatadantzari taldea, 1957. urtean ateratako erretratoan

Iruritako bestak maiatzaren 7an hasiko dira

Maiatzaren 7an, asteazkena, eguerdian botako den altxaferoa eta karrikapasekin hasiera emanen zaie Iruritan aurtengo Salbatore beste. Arratsaldeko 7etan ezkil-jotzea izanen da eta 9etan baztanzopak. Asteazkeneko mozorro dantzaldia, Egan Berria taldearekin ospatuko da, sariak izanen direlarik. Ortzegunean Salbatore eguna ospatuko da. 9etan karrikapasa txistulariekin eta 11etan Meza Nagusia herriko koroak kantatua. Eguerdian

herriko dantzarien emanaldia burutuko da, gaiteroek eta txistulariek lagundurik. Ondotik, hameketakoa banatuko da. Arratsaldean, nesken arteko futbol partidua eta soka-muturra izanen dira. Dantzaldia Joxelu Anaiak taldearekin izanen da, tartean mutil-dantzak dantzatuko direlarik. Ortzilerien haur eta jubilatuen egune ospatuko da eta asteburuari begira, hainbat bisitari espero dira. Egun horietako egitarauaren berri, hurrengo alean.

Nafarroaren Egunean hainbat baztandar joanen dira Baigorriara

Baztango Gazte Asanbladak Baigorriara bidaiara antolatu du apirilaren 27rako, Nafarroaren Eguna dela eta. Hainbat baztandar ur-

tero-urtero joaten dira Basaizea elkarteak antolatzen duen egun hau ospatzera. Harreman eta elkarlana sendotzeko asmoz antolatu du

ekitaldi hau Baztango Gazte Asanbladak.

Baztango mendigoizaleek ere, tradizioari segituz, oinez eginen dute bidaiara

flash

Autobusaren esperoan

egoteko, Mugairi, Arraioz eta Berroetako bidegurutzean, hotzaz eta euriaz babesteko aterpeak egitea eskatu dio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuko Garraio sailari.

Lekarozko aterpean

lanean aritzeko INEMek luzatutako azterketa deialdira 50 bat lagun aurkeztu ziren. Dagoeneko borts langile aukeratu dituzte.

Bi baztandar finalean

Inoiz ez bezala, Nafarroako bertolari txapelketaren finalean bi baztandar izan ditugu aurten. Bittor Elizagoien arraioztarra hirugarrena izan zen eta Mikel Altzuart arizkundarra, bere lehen txapelketan finalean sartzea lortu zuen.

Kultura eta Osasuna

izenburupean, zenbait ekitaldi (antzerkia, ibilaldiak, diapositibak) antolatu zituen joan den astean Baztan ikastolak.

ARMUA
Jatetxe

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA

MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 29
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



Gan den urteko arrekista errepikatu nahi dute Baztango dantzari-ek. Karrikan eginen duten antzespena izanen da aurten-go ekitaldi berexiena

Zaldua



◆ **Almandozko tunelaren**

obretan, lan osagarriak 29.865.784 pezetaren truke eginen ditu Mariezkurrena eraikuntza enpresak. Enkantean berea izan zen proposamen one-na, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio sailaren ustez.

◆ **Otxondon**

mendi landaketak eginen ditu Nafarroako Mindegiak enpresak. Aurrekontua 9.041.049 pezetakoa izanen da.

◆ **Elizondoko igerilekuko**

mantenimendua eta garbiketa zerbitzuaz Jose Luis Dussaubat arduratuko da hurrengo bi udatan, denboraldi bakoitzarako 1.200.000 pezetaren truke. Ostatuaz ere bera arduratuko da.

◆ **Lekarozko igerilekuko**

mantenimendu eta garbiketa lanak Txomin Perotxenak eginen ditu uda honetan, 890.000 pezetaren truke.

◆ **506 pertsona**

hurbildu dira olografia erakusketa ikustera Arizketuna Kultur Etxera.

“Hamabi ordu eskuaraz” ekitaldia maiatzaren 4an ospatuko da

Luis Luciano Bonaparteren etorrera antzestuko da

TTIPI-TTAPA

12 ordu eskuaraz Baztanen izenburupean, Baztango Dantzari taldeak antolatutako bigarren aldiko maiatzaren 4an ekintza ezberdinez osatutako eguna ospatuko da. Besta honekin gure hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi dute antolatzaileek, izan ere «egunero lanaz gain, hola-ko ekimenen antolatzea arras inportantea iduritzen zaigu eskuararen normalizazioaren bidean».

Bestaren bezperan,

goizetik hasita Baztango kirol talde guztiek parte hartuko dute eta Baztan eta Baigorriko rugby taldeen arteko partida jokatu da.

Biharamonean, goizeko 9etan argi-soinuak izanen dira herri guztietan. Aurten sartutako ekitaldi berexiena karrikan barna eginen den antzespena izanen da. «Berexiki Baztango eskuaragatik egin duten lan miresgarria goripatu nahiean» Bruno Etxenike eta Luis Luciano Bonaparte aukeratu dituzte, hauen inguruan istorio bat osatuz, mu-

sika eta besta giro ederez lagundurik. Ibilbidean, talde ezberdinek bere ekintzak eskainiko dituzte antzespenera barne. Ekitaldi honetarako aintzinako jantziak biltzen ari dira eta egun horretan moztarrotuak ateratzeko deia luzatu dute Baztango dantzari-ek. Goizeko parteari akaballa emanaz, karrikako antzespena plazaraino hurbilduko da, eguerdiko ongietorriari bidea emanaz. Haritschelhar euskaltzaina izanen dugu Baztango alkatearekin batera, lan hontaz ar-

duratuko dena. Mutidantza eta sokadantzarekin akituzat emanen dute goiz parteko zatia.

Merkatu Zelaian zikiro-jatea burutuko da eta bazkal ondotik, dantza emanaldia izanen da Elizondoko frontoian. Aurten 300 emakume baino gehiago bilduko dira dantzan, urtean zehar ikastarotan egindako lana plazaratzeko prest. Baztan eta Doneztebeko dantzariak biltzen ditu ikuskizun honek. Gaueko 9ak aldera, dantzaldia izanen da Elizondoko Iriarte frontoian.

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

**EGUN NABARMENAK
AHAZTEZINAK
EGITEN DITUGU**

FOTO MENA

KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

ZURE JAUNARTZE
EGUNEKO ARGAZKI
HOBERENAK

ESKATU ORDUA

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziera Belatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabaiak

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

ZUGARRAMURDI

Euskaldun kontrabandisten txartelarekin deskontuak eskainiko dira zonbait tokitan

25 pezetatan salgai daude inguru honetako kultur guneeetan

MARGARI ETA KORO

Aste Sainduan atera ziren eta 1997 urte osorako balio izanen duten "Euskaldun kontrabandisten txartela" salgai dago gure lurralde honetan. 25 pezetatan erosiz deskontuak egiten dira honelako toki haueetan: Donibane Lohitzuneko Gravine museoan; Donibane Garaziko Apezpikuen kartzelan; Saint Blaiseko ospitaleko elizan; Sorgiñak antzerkirako; Saran orga bidaiak egiteko; Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeak ikusteko... eta bertze toki zenbaitzutarako. Beraz, inguruko kultur eskaintza prezio hobean ikusi ahal izanen da.

Txartel hauek toki



Zugarramurdiko lezeetan sartzeko, bertze zonbait lekuetan bezalaxe, deskontuak izanen dira txartel hau erakutsiz gero

hoietan berean erosten ahal dira, baita landa-erxeetan ere.

Uda garaian, uztaila

eta abuztuan, goizetik bakarrik izanen dira baliagarria, eguerdia bitarte.



Maiatzaren 25ean eginen dute Sendotza hemezortzi gaztek

Maiatzaren 25ean, herriko hemezortzi lagunek konfirmazioa edo sendotza eginen dute. Hamahiru urte-tik hemezortzi urterainoko gazte hauek apirilaren 19an hasi ziren biltzen eta hortik aitzina, larunbatero goizeko 11,30etan eskoletan herriko apezkarikin egun hori ahal bezain ongi prestatzeko.

Herrian egin zen azkeneko sendotza duela bortz urte izan zen, beraz, pentsatuko duzue, ikusmin berezia sortu du aurtengo ospakizunak.

Bertzalde, aurten ez da Lehenengo Jaunartzerik izanen, ez baitago halako adineko haurrik. Datu hauek pentsarazi egiten ahal gaitu biztanle kopuruaren zahartzeari buruz.

Ibilaldiak:

- Ordu batekoak 1.500 pta.
- Bi ordukoak 3.000 pta.
- Lau ordukoak



Herriko Ostetua
Elgorriaga
Tel.: 45 05 92

Hilaldia aintzin, zaldian ibiltzen esperientzia gabeci klascak ematen zaizkie

Ibilaldi luzeak:

- Bat eta bi gauekoak; lo egiteko tokia, kanak barnean sartzen dira

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guereñdian

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



DANBORIENA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Haur kantu xapelketaren finalerdian hirurehun kantari bildu ziren polikiroldegian

Herritarrek ez zuten finalerako hautatuak izatea lortu

JACQUELINE ETA MIXEL

300 kantarik berrogoita hiru kantu eman dituzte hiru oren terdi iraun zuen Haur kantu xapelketako Lapurdiko erdi finalean. Ohizko kantuak oraino indarra badaukala seinale da eta Sarak ere bere ordezkariak bazituen. Eskola publikotik talde bat bazen eta pribatutik bi. Nahiz eta gure herritarrek finalerako ez hautatuak izan, sailkapen orokorraren aipatzea on da:

• **11-15 urtekoetan:** lehen, bakarka, Maialen Errotabehere, Bigarren, bakarka ere, Mohena Delacre, Lehen, binazka, Kattin eta Lorentxa Ithurralde, Lehen, taldeka, Ezpela korua.

Hauek guziak Miarritzeko finalerat joanen dira.

Olhain ikastola eta Zazpiak Bat dantza taldea genituen egun huren sustegatzaileak. Herriko Etxeak bere aldetik, polikiroldegia utzi zuen dohainik. Eskerrak guzieri.



Haurren lanak idazleen Biltzarrean


Erakasleak, haurtzainak eta haurrek berekin lanak araberako erreklama ukan zuten idazleen Biltzarrean.

Pottokaren babesteko urrats batzu han hemenka ematen ari dira

Pottokaren beiratzeko xede bat sumatzen da gero eta gehiago eta Saran berean pottoken biltzen eta sailkatzen ibiliak dira aitzineko asteburuetan. Pottoken jabeek bere burua ezagutarazten ahal dute eta kabalak sail batean edo

bertzean onartuak badira, nortasun agiri edo karta eskura lezake urri-rik. Desmarta hauek hemendik eta ekainerat iragaitekoak dira. Erran gabe doa Sara aldean eta gaineratiko herrietan pottoka hazleak amodioz ari direla eta

ez dela nehor diru egiten ari kabala horiekin. Bainan gure mendietako abere misterioitsu huren etorkizuna nehoiz bezainbat pottokazaleen eskuetan da eta ez dugu hauen goresterik bertzerik. Beraz, segi aintzina!




Gaupasen garaia datorkigu

Gaupasak hurbiltzen ari zaizkigu.

Usaian bezala, lehena apirilaren 30ean egingen da. Olhain ikastola eta Gaztetxearen alde da eta *Etsaiak* eta *Gozategiren* entzuteko parada ukanen da. Beti bezala dei bat zabalitzen dugu borondate oneri lan egiteko.

Bigarrena Herri Urratsen bezperan, maiatzaren 10ean iraganen da. Egitaraua larriki aipatuko dugu: 8 terdietan kantaldia *Saiberri* eta *Guk* taldeekin. 11etan rock jaialdia, *Joxe Ripiau* eta *DUT* taldeekin eta ondotik dantzaldia *Maltzeta* taldearekin.

Horretaz gain bertsulariak, Xapre trikitilaria eta *Zizkuiz-Izar* txaranga hor izanen dira bazterren alaitzeko. Biharamonean, berriz, urtero bezala, Senpereko aintziraren inguruan Euskal Herriko hainbat euskaltzale bilduko dituen Herri Urrats ospatuko da. Guziak gonbidaturik zaudete!



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

631188

EZKONTZAK

Emmanuel Fagoaga eta **Sylvie Toffolo**, Sarakoak, apirilaren 4ean.
Pedro Hurtado Grau eta **Laurence Richer**, Alicante eta Sarakoa, apirilaren 11n.
Jose Ramon Maiztegi Arrue eta **Elixabet Encarnación Letamendi Unamuno**, Nartartekoak, apirilaren 8an.
Javier Arraztoa Larregi eta **M^a Arantzazu Lazkanotegi Mujika**, Gartzain eta Berakoa, apirilaren 5ean.
Vicente Setoain Nazabal eta **Ana Gartxitorena Etxeberria**, Iruña eta Berroetakoa, apirilaren 5ean.
Marcelino Goñi Madariaga eta **M^a Gema Mitxelena Agesta**, Arantza eta Lesakakoa, apirilaren 5ean.

JAIOTZAK

Manon Peral, Sarakoa, apirilaren 2an.
Ane Petirena Insausti, Sunbillakoa, otsailaren 27an.
Mattin Asiain Zelaia, Elizondokoa, apirilaren 4an.
Joseba Pikabea Mitxelena, Berakoa, martxoaren 31n.
Josu Mitxeo Oteiza, Donamariakoa, martxoaren 4an.

HERIOTZAK

Antoine Soudre, Sarakoa, apirilaren 11n, 57 urte.
Norberto Beola, Sarakoa, apirilaren 9an, 88 urte.
Mixel Telletxea, Sarakoa, apirilaren 2an, 41 urte.
Manuela Erbiti Zabaleta, Leitzakoa, apirilaren 14an, 82 urte.
Jose Martin Goñi Irigoien, Oronozkoa, apirilaren 6an, 79 urte.
M^a Pilar Aldaba Aizpun, Elizondon, apirilaren 8an, 59 urte.
Bautista Etxeberria Elizalde, Goizuetakoa, apirilaren 11n, 74 urte.
Teofilo Mihura, Zugarramurdikoa, martxoaren 4an, 90 urte.
Miguel Telletxea Otxandorena, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 9an, 78 urte.
Jose M^a Legazkue Santesteban, Zubietakoa, apirilaren 8an, 49 urte.

ZORIONAK!


Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu




Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzailu hau, haur-garbitzarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahanzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Osa ezazu zure sukaldea gustoko duzun atea aukeratuz





Xabier Silveira nagusitu zen Sunbillako finalean

Xabier Silveira 567 puntu terdirekin nagusitu zen Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean. Ondotik izan zituen Arzallus (559,5), Elizagoien (554,5), Legarreta (550,5), Estitxu Arozena (541), Estitxu Fernandez (539,5), Estanga (535) eta Altuart (533,5). Zazpi lehenak, Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko txartela ere eskuratu zuten. Karnele

Baliteke aurten Cultur 97 mendialde osora zabaltzea

Bertziko Turismo Partzuergoan ez ezik, Piriniotako Partzuergoan eta Plazaolakoan ere antolatuko liratekeen aktibidadeak abuztuan

«Oraindik arras finkatu gabe daude gauzak» erran digu Imanol Lizardi, halere, lehen bilerak hasiak dituzte airean dauden afera desberdinak lotzeko.

LEKU BEREZIEK BILA

Aktibidadeek, berez duten balore eta berezitasunak indartu egin nahi dira aurtengoan. Horretarako, toki bereziak bilatuko dira, gisa horretara aktibidade horiei «balio erantsia» emanen zaielakoan. «Zugarramurdiko lezeak, San

Juan Xar inguruak...» aipatu digu adibide modura Imanol Lizardik.

Aktuazio berbera toki desberdinetan errepikatzea, bertalde, ez da interesgarri ikusten aurtengoan. «Errepikatzeotan, ez litzateke Partzuergo bateko herri desberdinetan eginen, Partzuergo desberdinetan baizik». Horrekin batera, baliteke aurtengoan «aktuazio kopuru tikiagoa egitea, bainan haiek kalitate hobea dutenak».

FINANTZIAZIOA

Bianako Printzea instituzioak eta Turismo sailak finantziatuko dute aurrekontuaren zati bat, eta gainerakoa, tokian tokiko Turismo Partzuergoek. «Iguaitso apartu beharko dugu seguraski»

AKTUAZIOEN DISPERSIOA

Nahiz eta Iruñeko arduradunen iritziz dispersioa faktore negatiboa izan, Lizardiren ustez, «ez du zergatik horrela izan behar».

Pegatina eta leloa hautatzeko lehiaketa antolatu du Doike taldeak

Lanak maiatzaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira

Baztango Doike euskara taldeak pegatzen diseinua eta leloa hautatzeko lehiaketa antolatu du. Diseinua eta leloa tinta batean egin beharko dira, fondo horia izanzen dela kontutan harturik. 3-4 hitzeko leloak euskara erabiltzera bultzatuko du. Lanak DIN A4 neurriko euskarri gogorrean aurkeztu beharko dituzte partehartzaileek. Lanak maiatzaren 17 baino lehen Doike euskara taldearen esku egon beharko dute. Helbidea: Doike Euskara taldea, 13. Postakutxa, 31700 Elizondo. Bi diseinugile, Baztango bi artista eta Doike taldeko bi kidek osatutako epaimahaiak maiatzaren 26tik aitzinat ezagutzera emanen du lan saritua.

Erranera zaharren bilduma lehiaketa

Berako Euskara Batzordeak antolatuta

Berako Euskara Batzordeak, Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz, **Berako erranera zaharren bilduma lehiaketa** antolatu du. Lehiaketan Beran sortu edota bertan bizi diren 16 urtetik goitikoek parte hartzen ahal dute eta 100.000 pezetako sari bakarra izanzen da. Xehetasun gehiagoren berri, 15. orrialdean aurkituko duzue.

TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 40 komertzio eta zerbitzuetan sekulako deskuentoak egiten dizkiote dagoeneko TTIPI TXARTELA duten erosleei. Ez galdu aukera. Eskatu bat zuretzat.

631188

Plazaolako txirrindulari taldearen aurkezpen ofiziala burutu zen

- Kirol munduko jende ezagunak dira taldearen atautxiak
- Basa-kabi hotelean presentatu ziren apirilaren 4an

 Kirol munduko pertsonai aski famatuak izan ziren apirilaren 4an Basa-Kabi hotelean, Plazaolako Turismo Partzuergoak aurtengoan plazaratu duen afizionatu mailako txirrindulari taldearen aurkezpenean. Jende gehien erakarri zuena Miguel Indurain izan zen, baina han zeuden Jose Mari Retegi, Iñaki Peurena, Mikel Saralegi, Juan Mari Bengoetxea, Ladis Galarza, Miguel Zestau, Juan Miguel Sorroa eta Jesus Mari Sorroa, bertzeak bertze.



Aurpegi ezagun ugari ikus zitezkeen Plazaolako Partzuergoak errepedieratu duen txirrindulari taldearen aurkezpenean

Argazkia: D.Noticias

Kirolariez gain, Partzuergoko lehendakaria, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendaria eta Nafarroako txirrindularitza federazioko lehendakaria ere agertu ziren aurkezpen ekitaldira.

Aurreko ale batean agertu genuen bezala, Luis Vicente Otin, Leitzako txirrindulari profesional ohiak zuzenduko du 17 txirrindulariko taldea. Horien artean Legasako Oskar Subiza, Etxalarko Jon

Sanzberro, Berako Mikel Garcia eta Leitzako Urko Zubillaka arituko dira. Taldekide gehienek lehen urtea dute afizionatu mailan, beraz, aurtengo helburua «*euren artean ongi moldatzea, disziplina ezartzea*

eta estudioekin segitzea» izanen da, Luis Vicente Otin zuzendaria esanetan. Indurainek berak ere ongietorria eman zion taldeari: «*mutil gazteak bizikletari lotuak segitzeko modu egokia dela*».

Carlos Goiburuk irabazi zuen Lesakako II. Rallysprint-a

 BMW taldeko Carlos Goiburuk gipuzkoarra nagusitu zen Lesakako II. Rallysprintean. Joan den urteko irabazlearen denbora ia minutu terdian hobetu zuen eta 26'42"tan bete zuen ibilbidearen 40 kilometroak; Katazpegiko bidegurutzetik ateri eta San Antongo presaraino lehen txandan eta alderantzizko bidea bigarrenan. Bigarrena Labaka izan zen (Ford Sie-

rra) eta hirugarrena Artetxe (Ford Escort).

Lesakako Eguzki elkarteak eta Azpeitiako Lagun Artea esku deriak antolatutako proba ikustera ehundaka jende hurbildu zen Agiñako errepediera. Guzira 44 gidarik parte hartu zuten, iaz baino borts gehiago, eta tartean Bortzirietako batzuk zeuden.

Harri xehea dela eta istripuren bat izan bazen ere, ez zen inolako ezbehar larrik suertatu.

Baztan haurretan eta Beti Gazte alebinetan nagusitu ziren Lekarozko Futbol-7 txapelketan

 Baztan taldea haurren mailan eta Beti Gazte taldea alebin mailan nagusitu ziren apirilaren Sean Lekarozko futbol zelaian jokaturako Futbol-7 txapelketan.

Baztango kirol koordinatzaileak, Balleko Etxearen laguntzaz antolatutako txapelketara hamabi talde aurkeztu ziren, seina maila bakoitzean.

Haurren mailan bi multzotan banatu ziren

parte hartzaileak. Multzo bakoitzeko lehenak finala jokatu zuten elkarren artean eta Baztanek 5-0 irabazi zion Lesakako Beti Gazteri. Hirugarren eta laugarren posturako norgehiagokan Leitzako Aurrera B taldeak 3-2 irabazi zion Aurrera A taldeari. Ondoren, Lekarozko bi taldeak sailkatu ziren.

Alebin mailan gisaberean jokatu zen txapelketa. Hemen Beti Gazte suertatu zen garaile, finalean 9-3 irabazi baitzuen Aurrera taldeari. Hirugarren eta laugarren posturako partiduan Iruritik 3-2 irabazi zion San Francisco Javier ikastetxeko taldeari. Ondotik, Baztan ikastolako bi taldeak sailkatu ziren.

DONOSTIAKO HORMA-PALAZIORA

51 neska-mutikogan ziren Donostiako Horma-palaziora. Baztango Kirol zerbitzuak antolatutako ekitaldiak arrakasta izan zuen, bistan denez.



■ Nafarroako Club arteko txapelketa

Apezetxea goizuetarra eta Almandoz lesakarra bigarren urtez txapeladun suertatu dira Nafarroako Club arteko txapelketan. Umorre Onaren izenean parte hartu dute txapelketa honetan eta finalean 22-8 irabazi zieten Paz Zigandako Goñi eta Tirapuri. Almandozek erran zuenez, «*partidu gogorra goa espero genuen, baina Goñik ez du bere maila eman*».

■ Espainiako jubenil mailako txapelketa

Aimar Olaizola goizuetarra eta Iriarte burlatarra azpitxapeladun suertatu ziren, finalean Gipuzkoako Laskurain-Bengoetxea bikotearen kontra 14-22 galdu ondotik. Palencian jokatu zen txapelketa hau.

Rafa Maritxalar nagusitu zen Lesakako Herri Laisterketaren bosgarren edizioan



Rafa Maritxalar nagusitu zen apirilaren 13an

burutu zen Lesakako herri laisterketaren bosgarren edizioan, 23'46" behar izan baitzuen 8 kilometroko ibilbidea betetzeko. 47 segundu beranduago sartu zen Herrerako Florian Garcia eta Patxi Pikabea beratarra hirugarren izan zen, minutu eta sei segundura. Emakumeen artean Amelia Lorza donostiarrak irabazi zuen. Senior mailako atleta herrikoien artean Aingeru Mindegia leitzarria izan zen nagusi, Iruriko Angel Garate laugarren eta Narbarteko Mixel Aginaga bosgarren. Helduetan, gizonen artean Angel M^a Aizpiola izan zen lehena, Manolo Otero doneztebarraren aitzine-tik. Emakumeen artean, Arrasateko M^a Carmen Garcia suertatu zen irabazle. Junior mailan, Lesakako Diego Martinez eta Sara Rodriguez azpeitiarra izan ziren lehenak.

Laxoa txapelketa

5. ihardunaldia (IV-27)

Oitz B-Donoztebe A (12.00)
Arraioz-Donoztebe C (12.00)
Irurita B-Irurita A (17.00)
Irurita C-Elizondo (12.00)

6. ihardunaldia (V-1)

Arraioz-Donoztebe B (12.00)
Donoztebe C-Oitz B (12.00)
Oitz A-Irurita A (17.00)
Irurita B-Elizondo (12.00)

7. ihardunaldia (V-4)

Donoztebe C-Donoztebe A (12)
Donoztebe B-Oitz B (17.00)
Irurita A-Irurita B (17.00)
Elizondo -Irurita C (12.00)

Marka berria: 559 laisterkalari

Proba nagusian iaz baino partehartzaille guttiago izan baziren ere (89), maila tikieta 462 laisterkalari-rik parte hartu zuten, sekula baino gehiago. Saikapenak:

Aurre-benjaminak:

- Cristina Mutuberria (San Miguel, Doneztebe)
- Markel Suarez (Irain, Lesaka)

Benjaminak:

- Sandra Piera (Irun)- 2. Ane Bergara (Labiaga, Bera)
- Santi Mindegia (San Miguel, Doneztebe)

Alebinak:

- Illune Gorbe (Irun)- 3. Olaia Oliveira (Labiaga, Bera)
- Carlos de la Fuente (Jesusen Bihotza, Bera)

Infantilak:

- Jaione Galdos (Irun)- 5. Aintzane Goienetxe (Toki Ona, Bera)
- Iñaki Mihura (Lekaroz Inst., Elizondo)

Kadeteak:

Amets Maiztegi (Irun) eta Mikel Mutuberria (BAT). Lehen aldiz 7 urtez behitiko laisterkalari-ek -60 guzira- parte hartu dute, 100 metro eginez.

• Zatoz Rural Kutxara zure aitortpenarekin. Lagunduko dizugu.

• **Erantzun bizkorra**
Itzulpenak azkartzeaz eta ordainketak alzeratzeaz arduratuko gara.

• **Erosotasun guziarekin**
Aldez aurreko zitarekin hartuko zaitugu, joan-etorri deserosoak egin beharrik gabe.

• **Arreta pertsonalizatua**
Eta Nafarroako Rural Kutxa bereizten duen tratu pertsonalarekin.

• **Dohaineko Zerbitzua**
Zure aitortpena dohainik egin eta tramitatuko dugu.

• **Talde espezializatu baten aholkularitza**
Zure Aitortpena konpontzeko behar duzun informazio guziaz eskainiko dizugu, talde espezializatu baten eta baliabide tekniko guzien laguntzaz.



AGENDA EGUNEZ EGUN

OSPAKIZUNAK

BAIGORRI

► Apirilaren 27an

Nafarroaren Eguna. Gaiteroak, ziganteak, buruhandiak, dantzak, herri bazkaria, eskulangileak... izanen dira Baigorriin.

ELIZONDO

► Maiatzaren 4an

«12 ordu eskuaraz» ekitaldia antolatu du bigarren urtez Baztango dantzari taldeak. Aurtengo berrikuntza, karrikan eginen den antzeslana izanen da.

LESAKA

► Maiatzaren 4an

Euskal Jaia, Tantirumairu dantza taldeak antolatuta. Euskal Herriko 250 dantzari espero dira.

BESTAK

IRURITA

► Maiatzaren 7tik

11ra Salbatore bestak.

URDAZUBI

► Maiatzaren 8tik

11ra Salbatoreak.

MAHAINGURUAK

BERA

► Apirilaren 25ean

arratsaldeko 7,30etan Gure Txokoan 'Euskaldunen Umorea'ri buruz. Erausian taldeak antolatuta.

SOLASALDIK

IGANTZI

► Maiatzaren 2an

arratsaldeko 7,30etan Eskola zaharretan 'Nola egiten da bertso bat?' solasaldia eskainiko du Jon Sarasuak.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.800 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 210 pta./kilo
- **Zerramak**: 135 pza./kilo bizi-rik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pza./kg. Kanal
- Extra520
- 1.koa500
- 2.koa470

- **Urruxak**: Pza./kg. Kanal
- Extra530
- 1.koa500
- 2.koa4860

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukook):

Nabarrak: urruyak 15.000 eta idixkoak 23.000 Pta.

Mestizoak: urruyak 24.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



Dantza erakustaldi ikusgarria egin ohi da urtero Baigorriin.


HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Nafarroaren Eguna

Igande honetan bertan ospatuko da Baigorriin urtero-urtero egiten den besta; Nafarroaren Eguna. Apirileko azken igandearrekin, iparralde nahiz hegoaldeko jende aunitz bilduko da Baxenafarroko herri tiki honetarat, han izanen diren dantza saio, bazkari herrikoio... eta giro ederraz gozatzeko asmoz. Hauetako gehienak kotxez joanen dira Baigorriaraino, baina pixkot ausartagoak direnak ttaka-ttaka oinez abiatuko dira goizean goiz.

Baigorriar eguerdi parterako ailetzeko asmoz. Baztango Mendigoizalek erraterako, ibilbide hauxe egiten dute: Elizondotik ateri, Bergara, Aintzialde, Gorostapolo, Iñarbil, Altxa Erreka, Izpegi-ko gaina gaintitu, eta handik Baigorriaraino jaitsi. Eguraldi ederra bada bederen, igandepasa joateko aukera ederra duzue Baigorriin.

DISKAK



«MAIXA TA IXIAR»

Elkar

Laister emanen da argitara Maixa ta Ixiar taldearen disko berria. Momentuz, bi kantu biltzen duen konpaktoa iritsi da gure eskuetara. Eta egia erran, bi kantu hauen atzetik, erritmoan oinarritutako disko beroa antzeman daiteke.

Dantza eta kolore handiko lana da ageri denez, kalitatea ikur bezala hartuta

borobildutako lana. 'Bexamela ta pastela' eta 'Deabrutxo maitia' dira bi kanta horien tituluak; lehena Ixiar Orejak moldatua eta bigarrena, Jorge Gonzalezek.

Elkar argitaletxeok jakinarazi dutenez, maiatzaren erdialderako ezagutu ahal izanen dugu lan hau bere osotasunean. Harremantarako tfnoa: 908.771539.

JAKIN BEHARREKOAK

Lentilen estutxeak behar bezala garbitu behar dira

Lentilak erabiltzen dituzu? Zein motatakoak: gogorrak, bigunak, erdi-bigunak? Eta zer nolako tratua ematen diezu dagoeneko lagunminak bihurtu zaizkizun horiei?

Galderok ez dizkizut arrazoirik gabe bota. Horien ondotik mezu bat eman nahi nizuke. Duela egun batzuk irakurritako berriaren arabera, ukipen-lenteak gordetzea erabiltzen diren estutxeen kontaminazioak ikusmenaren galera ekar dezake 48 ordutan, eta baita bestelako infekzio grabeak ere. Izan ere, lentila kontaminatzen duten deposito edo hondakin organikoak pilatzen baitira estutxe horietan, ongi garbitu ezean eliminatzen nahiko zailak direnak.

Hobe da hiruzpalau hilabetero estutxek aldatzea

Espainiako Optikoen Kole-



gioko presidentea den Ricardo Fernandezek hiruzpalau hilabetero estutxeak aldatzea gomendatzen du; baina berak gehitu bezala, «*arazoa ez da hain larria. Lentilak profesional batek jarritz gero, honek emanen dizkio erabiltzaileari infekzioak kal-*

terik egin ez diezaion beharrezko jarraibideak. Erabiltzaileak ukipen-lenteak erabiltzen dituen bakoitzean eskuak behar bezala garbitzen baditu, edo estutxea bi egunetik behin ur eta xaboiarekin garbitzen badu, oso zaila da kontaminaziorik agertzea».

Estutxeen kontaminazioak ikusmenaren galera ekar dezake 48 ordutan

Korneako infekzioa

Kontaminazioarena lentilak erabiltzen dituztenen ohiko arazoa da. «*Estutxean pilatzen diren zikinkeriak kultibo-likido bikainak baitira lentila kontaminatzen dute mikroorganismoak ugaldaitzen» . Aurretik kornea gaiturik edo kalteturik balego, mikroorganismoek korneako infekzioa sor dezakete.*

JABIER AGIRRE

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

► Apirilaren 27an

Baigorriaraino joanen dira Baztango Mendigoizaleak, Nafarroaren Eguna dela eta.

► Maiatzaren 4an

12 Ordu eskuraz ospatzen da Elizondon. Baztango Mendigoizaleek Elizondon hasi eta akutuko den ibilaldia egingen dute.

GAUPASAK

SARA

► Apirilaren 30ean

Etsaiak eta Gozategi. Olhain ikastola eta Gaztetxearen alde.

► Maiatzaren 10ean

Herri Urrats bezpera: 8,30etan Saiberri eta Guk. 11etan Joxe Ripiau eta DUT. Ondotik, dantzaldia Maltzeta trikiti taldearekin. Xapre trikitalaria eta Zizkuitz-Izar txaranga ere bertan izanen dira.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

► Apirilaren 21etik 27ra

Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

► Apirilaren 28tik maiatzaren 4ra

Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizueta.

► Maiatzaren 5etik 11ra

Etxalar, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Leitza, Goizueta.

LIBURUAK



«TIGRE EHIZAN»
Aingeru EPALTZA
ELKAR

Mundu oso bat adieraz lezake egun baten kontaketa. Bi mundu elkartzen ditu hemen 1944ko abuztuaren 7ak. Bi mundu, eta 36ko gerrak desegindako familia bat: aita, Martin, Venezuelako oihanean dabil lanean, eta giza haragiarekin zaletu den tigre baten ehizan abiatu da gaur; semea, Martintxo, Lapurdiko Larresoron bizi da gainerako senideekin aterbe-

turik, eta tanke nazien joan-etorriak zaintzen ditu bere lagunekin batera, haien erretirada gertu dagoela jakin gabe. Aita-semeen eguna kontatzen zaigu paraleloan, eta tragedia-aren zantzuak sumatuz doa pixkanaka irakurlea, xehetasunik ardua berezia eta hizkuntzaren menderatze harrigarria erakusten dituen nobela labor baina sakon honetan.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Ermateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BERA. Pisua salgai. Hiru gela eta ganbara. ☎ 909.432416 (arratsaldez).

BERA. 125 m²ko pisua salgai, 33 m²ko trasteroarekin. Eztegarra pasealekuan. ☎ 630837.

BERA. Pisua salgai, eguzkitsua, Eztegarra karrikan. ☎ 630791 (goizez) edo 630704 (arratsaldez).

BERA. 125 m²ko pisua salgai. Mobleztatua. ☎ 450369.

IGANTZI. Pisua bere garaje eta sotoarekin salgai.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

☎ 637818.

LESAKA. Etxe edo base-ri bat errentan hartuko nuke, moldatzeko baldin bada ere berdin. ☎ 909.477277.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisua errentan hartu nahi dut, ttikia baldin bada berdin da. ☎ 630686

SUNBILLA. Baseria alokatzen da, amueblatua, bere terenoarekin eta granja etxe ondoan. ☎ 637306

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

(arratsetan).

LESAKA. Garaje bat errentan emanen nuke, Albistur, 64ean. ☎ 637820.

LESAKA. Lurrazpiko bajera alokatzeko Albistur ka-

ZERBITZUAK

201 IGLTSEROAK

rrikan. ☎ 637948.

Igeltsero lanak egiten dira, abudo eta merke ☎

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

450326 (gauzez).

Kartelak, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188 Bulego orduetan.

LANA

301 ESKARIAK

Emakume bat edozein lanetan arituko litzateke Lesaka inguruan, haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten hobe. ☎ 637825.

Pelukeria titulua duen Etxalarko neska bat eskaintzen da pelukeri lanak egiteko edo bertzenaz haurrak zaintzen eta etxeko la-

ORDENADOREZ

LANAK EGITEN DIRA

Fakturak, kartelak, lanak ordenadorez pasatu, etab.

Programa hauek: HTML, WINDOWS, POWERPOINT, WORD, ACCESS, EXCEL, HARVARD GRAPHICS.



☎ 450441

nak egiteko. ☎ 635164.


Neska batek haurrak zainduko litzuke. ☎ 631040.

Neska gazte batek edozein lan eginen luke udan Elizondo aldean. ☎ 452132.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Honda CBR 600ekoa salgai, karreterakoa, 90ekoa.



☎ 63 11 57 • BERA

Stockean dauden ibilgailuen **LIKIDAZIOA**

Prezio bikainak:
50.000 ptatik goiti

Dieselak

- Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.
- Ford Courier Combi lagunduriko direkzioa, 95koa.
- Renault 9 GTD, 5 ate, 84koa.
- Nissan Terrano 2.7 TD, 3 ate, 85koa.

Gasolina

- Ford Escort XR3 3 ate, 86koa.
- Ford Fiesta 1.1 5 ate, 89koa.
- Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.
- Ford Escort RS 1.6 3ate, 91koa.
- Renault 11 1.7 5 ate, 87koa.
- Ford Orion 1.4 4 atekoa.
- Rover Montego 2.0 4 ate, 90koa.
- Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.
- Ford Fiesta 96 16v, 95koa.

☎ 630270 (bazkalorduetan).

Peugeot 405 SRDT kotxea salgai, NA-AF matrikuladuna eta haize egokituare-



AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 •



Iturilandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

kin. ☎ 630299.

Trialeko motoa salgai, Gi-

lera Dakota 500 markakoa. 13.000 km, hagitz ongi dago. ☎ (943) 627748. Agus-

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Lada
- Kadett 1.8i
- Patrol GR, 2 urtekoa (berri-berria)
- Suzukiak: Samurai eta Vitara




4 x 4 autoak eta furgonetak erosten ditut

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

tin.

Torrot motoa salgai, 49z.k.koa. Egoera onean. ☎ 510296.

Volkswagen Polo salgai. NA-O. Urte bateko seguruarekin. Motorra hagitz ongi du. Merke. ☎ 630628-



BERABI tailerrak
☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:
Nissan Patrol Top-Line
Nissan Terrano IITD, NA-AJ
Jeep Cherokee 2.5 TD
Nissan Patrol, NA-P
Ford Escort 1.8D, SS-AH

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

631481.

Bi ahari salgai, bata mutur-gorria eta beltz-beltza

bertzea. Pirenaika arrazako migatua ere salgai dugu, 23 hilabetekoa. ☎ 943-528185

Aharia saltzeko, 2 urtekoa eta arraza onekoa, mutur gorria, Leitzako Bordaberrian. ☎ 610607.

Euskal arrazako **artzain txakurra**, urtebetekoa oparitzen da. ☎ 637050.

Beltxarga (zisne) batzuk erosi nahi ditut. Non aurkitzen ahal ditudan baldin badakizu deitu. ☎ 637264 (Mikeli. Denda orduetan).

Bi ahuntz salgai, bat bi urtekoa eta bertzea bere umearekin. Sokan lotuta egotera ohituak. ☎ 599141.

Bi behi salgai. Frisoiak, esnekoak dira eta ernari daude. ☎ 615124.

Ahari mutur gorria salgai. 15.000 pzta. ☎ 451552 Arratseko 9etatik aintzinerara.

Basurde ehizarako zakurkumeak salgai. Bi hila-betekoak. ☎ 514199 (gaue-tan).

Oilagor zakurra salgai, urte terdikoa. ☎ 397032

ANIMALIAK

602 EMATEKO

Gaueko 10etatik aurrera. **Zakurkumeak** oparitutok nitzuke. ☎ 630909 Ana Pi-

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

zzio.

Bi giltza aurkitu ditugu Etxalarko Eskolaren jostalekuan. ☎ 635222. Zureak

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

baldin badira deitu eguerdi eta ilunabarretan.

Renault Trafic baten **atzeko esertokia eta segurtasun gerrikoak** (hiru hilabetez erabiliak) salgai. ☎ 452239-580707 (Iñaki).

Sime markako **Gasoilezko galdara** salgai. 45.000 pezeta. ☎ 452431(9etatik aintzinerara).

Esne-tankea salgai, Alfa-Laval markakoa eta 200 litrokoa. ☎ 510356.

Teka markako **labea, plaka bitrozeramikoa eta ke erauzgailua** salgai. Estreintatu gabeak. ☎ 452431

STIHL markako desbrozadora salgai, gutti erabilia. ☎ 452431(arratseko 9etatik aintzinerara).

Kanpineko karro bat saltzeko. ☎ 452239-580707.

Bose markako **lau altaboz** eta Phoni markako **etapa** bat salgai. ☎ 510021 (eguerdiko 2etatik aurrera).

Garajeko ate baskulantea salgai. 2,90m altura eta 3,58 zabal. ☎ 943-521156 (arratseko 9etatik 10etara, Juantxo).

Esne tankea salgai. 250 li-

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

tro. ☎ 943-521156 (arratseko 9etatik 10etara, Juantxo).

Pertsona bat behar dugu Iruñeko Arrosadia auzoan pisua osatzeko. ☎ 237072 (Mikel, eguerdi eta gauez).

Neska bat behar da pisua osatzeko Iruñeko Txantrea

HARREMANAK

801 AGURRAK

auzoan. ☎ 128737.

Kitarra eta baxu klaseak ematen ditut. ☎ 630217 Fermin.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Elixabet Bengoetxea urdazubiarrak 19 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak eta muxu bat klaseko lagunen partetik.



Francisca Ibarra sunbildarrak 90 urte eginen ditu maiatzaren 8an. Zorionak zure seme, iloba eta biloben partetik.



Edurne Pérez Dagerre legasarrak 10 urte bete ditu apirilaren 24an. Zorionak zure familiaren partez.



Maider Arrizurieta 21 urte bete ditu apirilaren 24an. Zorionak zure hiru lagunen partez, beti bezain polita segi!



Asier Zelaleta Tomasena etxalartarrak 5 urte bete ditu apirilaren 19an. Zorionak eta muxu bat guraso eta Amaieren partez.



Felixi Apeztegia oiztarrak 81 urte beteko ditu apirilaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Jose Mº Bengoetxea irundarrak maiatzaren 2an beteko ditu urteak. Muxuak emazte eta semen partez.



Gurutze Graziarena sunbildarrak maiatzaren 1ean iaz baino urte bat gehiago beteko du. Zorionak bi miresleren partez.



Imanol Arretxea Goñi elizondarrak 6 urte bete ditu apirilaren 21ean. Zorionak familiaren partez eta muxu handi bat.



Nagore Fernandez Ruiz lesakarrak urte bat beteko du apirilaren 23an. Zorionak familiaren partez.



Ramon Zozala lesakarrak 28 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak andregai eta familiaren partez.



Iraitz Astiz Barquilla leiztarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Zorionak eta muxu bat aita eta amaren partez.



Leire Mitxelena Gamio aranztarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak guraso, Itziar eta familia



Amalur Narbarte Eskudero goizuetarrak 3 urte eginen ditu maiatzaren 1ean. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



Ane Miren Barandiaran Sorabilla leiztarrak urte 1 bete du apirilaren 24an. Zorionak zure lehengusu Maiteren partez.



Eli Bengoetxea urdazubiarrak 20 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak zure kuadrilaren partez.



Ana Bengoetxea urdazubiarrak 19 urte bete ditu apirilaren 22an. Zorionak zure kuadrilaren partez.



Nekane Mitxelena Arizleta leikaroztarrak 6 urte beteko ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Saioa Jaurena Atxa elizondarrak 8 urte bete ditu apirilaren 21an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Joseba Ariztegi Juanena lantztarrak 19 urte beteko ditu maiatzaren 4an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Unai Urkiola leiztarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak eta muxu handi bat bere familia guztiaren partez.



Iraia Ceballos leiztarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat bere familiaren partez.

Narbarteko Maria I. eta **Jaione L.ri:** ez erre hainbeste, txarra da eta. Lagun baten partez.

Lesakako Mikel Oartz-

baleri: zure bakeroekin ipurdia markatzen zaizu, neska guzien gozamenerako. Nerekin ateri nahi duzu? Berri gehiago izanen duzu.

Lesakako Fernando Susperregi eta Izaskun Seine-ri: zuek Bordatxon emandako ostiak eta belarrondokoak ez dute nere izena

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Veronica Otero Perez
8 urte beteko ditu maiatzaren 8an. Zorionak Daniel Jose, M^o Jose eta Marlenen partez.



Itxaso Fagoaga Etxabe
lesakarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Mikel Campo Escalada
Lertxundi itundarrak 5 urte bete ditu apirilaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Joseba Escalada Lertxundi
elizondoarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak zure familiaren partez.



Usua Garmendia Etxebes-tek
urteak beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak guraso, anaiak eta amatxiren partez. Muxu haundi bat.



Jesusa Cambroner Elizondok
urteak bete ditu apirilaren 6an. Zorionak!



Ameisa Lameirinhasek
17 urte bete ditu apirilaren Sean. Zorionak!



Oihana Abuin Pardal
lesakarrak 11 urte bete ditu apirilaren Sean. Zorionak! J.I.A.A.B. eta A.



Alex Abuin Yepes
lesakarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 1ean. Zorionak! A.B.O.J.I. eta A.



Nerea Anzizar Irazoki
beratarak 6 urte eginen ditu apirilaren 19an. Zorionak zure familiaren partez.



Nerea Matxiñena Lasagak
3 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Jon Apezte-txea Ruiz
goizuetarrak 9 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak eta muxu bat Oier eta gurasoen partez.



M^o Luisa Goñi Petrirena
beratarak apirilaren 15ean urteak bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat zure lagunen partez.



Esther Lasarte Goia
beratarak apirilaren 15ean urteak bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat zure lagunen partez.



Pilar Bikondoa Iturraldek
70 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak familiaren eta bereziki iloben partez.



Jon Olaizola Etegarai
lesakarrak 10 urte bete ditu apirilaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat Ander eta gurasoen partez.



Asier Apezte-txea Iparagirre
arantzarrak 17 urte bete ditu apirilaren 13an. Zorionak guraso eta liigo anaiairen partez. Ongi pasa.



Lourdes Indakoetxea
arantzarrak apirilaren 30ean bertze urte bat gehiago eginen du. Zorionak.



Agurne Maritxalar
igantziarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Lide Treku Urreta
doneztebarrak 15 urte bete ditu apirilaren 11n. Zorionak! asmatzen baduzu noren partez...



Miren Barazabal
azpilkuetarrak 16 urte bete ditu apirilaren 16an. Herriko lagunen partez zorionak.



Izaskun Irungarai
azpilkuetarrak 16 urte bete ditu apirilaren 11n. Zorionak azpilkuetarren partez.



Xabier Ugalde Trabadelok
urtea bete du. Zorionak atauxi-amauxi eta izebaren partez.



Olaia Loiarte Etxekolonea
errenderiarrak urtea beteko du apirilaren 30an. Zorionak eta muxu bat amaxi En-graxiren partez.



Xabier Jaunarena Etxekoloneak
3 urte beteko ditu Maiatzaren 11n. Zorionak aita, ama eta Jonen partez.



Patxi Peña
gartzaindarrak 35 urte egin ditu apirilaren 19an. Zorionak Jokin, Inaxio, Ainhoa, Anaís eta Anaren partetik.



Inaxio Ursuegi
gartzaindarrak 29 urte bete ditu apirilaren 12an. la ekartzen diguzun pastel bat. Zorionak.



Beñat Errea Iribarren
elizondarrak 10 urte bete ditu apirilaren 18an. Aunitz urtez, aita, ama eta Joanesen partez.



Ainhoa Alemán
gartzaindarrak 22 urte bete ditu apirilaren 14an. Zorionak: Jokin, Inaxio, Patxi eta Anaren partez.



Mikel Mutu-berria Bergara
lesakarrak 19 urte bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak familiaren partetik. Muxu haundi bat (B).



Francisco Berrueta
ebalartarrak 51 urte beteko ditu maiatzaren Sean. Zorionak zure familiaren partez.



Juan M^o Bertiz
ebalartarrak 29 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak zure familiaren partez.



Iraide Sagardia Amiano
gatzeluarrak 5 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak guraso eta Eriken partez. Muxu bat, bihotza.



Alain Zia Zubeldiak
9 urte bete ditu apirilaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat Leitzako familiaren partez.



Ander Bereau Zapirain
lesakarrak 13 urte bete ditu apirilaren 23an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familiaren partez.



Markel Maia Sadaba
lesakarrak apirilaren 29an eginen ditu 6 urte. Aunitz urtez, familiaren partez.



Jabier Maia Sadaba
lesakarrak apirilaren 26an beteko ditu 2 urte. Aunitz urtez bere familiaren partez.



Bautista Irurueta
doneztebarrak 51 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak Alazne eta Bidatzen partetik.



Maialen Larretxea Urrutia
Iraizotzarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak etxeko-en partetik.



Virginia Moncalvillo Garridok
maiztzen 6an 26 urte eginen ditu. Zorionak Begoña, Mertzxe eta Rakelen partez.

zapalduko.

Izaskun I. eta Miren B.ri: dakizuen bezala, horrenbeste urte bete ondoren, besta egitea alde batera utzi beharko duzue, beste la "artrosia" sartuko zaizue eta hori ez da batere ona osasunarentzat. Taz, Labri eta arrebatxoaren partez.

Labiaga ikastolako DBH-ko lehen mailako Aiala eta Alazneri: oso onak zaude-te Juan M. Iren partez.

Arizkungo Andres Mendi-berri zorionak, maiatzaren 5ean beteko baititu urteak. **Iloba Leireren partetik.**

Lesakako Amaia C.ri: Zorionak Izaskun eta Joxe-

mariren partetik. Aunitz urtez.

Elgorriko Oihana, Oizko Ainhoa eta Urrozko Martari: oso onak zaudete. Espero dugu zuekin zerbait izatea. Zuek dakizuen Berako mutil batzuen partez. **Ikusi arte.**

Garbiñe Fagoaga: Ez erre,

txarra da-eta. Toki Onako lehen mailako bat.

Labiaga Ikastolako ikasle batzuei: Aiala, Alazne, Naiara eta Aitziber. Kontuz ibili. Demonio Asesinoa.

Goizuetako hiru Txiskola-riei: zorionak zuen ahaleginarengatik. Goizuetako lagunak.

Gure eskerrik beroenak Ximon, Olaso, Niko, Fernando, Berroeta eta Batis-tari eman diguzuen laguntzagatik. Goizuetako Txiskolariak.

Zorionak Doneztebeto Iratxe Amigorenari: apirilaren 16an urte bat bete duela. Beintza-Labaingofa-



PVC LEIHOAK



Erakusketak:

- Luis Mariano • **IRUN**
Tfnoa: 943 - 62 58 88
- PRYCA Merkatal Zentrua • **OIARTZUN**
Tfnoa: 943 - 49 25 97

UTZI ZURE ETXEAREN ZAHARBERRITZEA
EGIAZKO ESPEZIALISTEN ESKU



GAZTAÑAGA

ATEAK eta LEIHOAK



AMAIVR

DONEZTEBEko sarreran ☎ 948.450400

Udaberriaren alaitasuna aprobetxatuz, anima zaitez zure etxeko sukalde eta bainuak aldatzera. Horretarako Doneztebeko AMAIUR Altzariak prest ditu modelo berriak Etorri eta ikusi.



SABOR TROPICAL BORDAXON



Este sábado
Larunbat Honetan
Apirilak 26